



ARGIA

**ARGIA EGUNA
ONDARROAN**

**TXIKIA
BEROA
ZABALA**

» ALEPO, MUNDU GERRAN HARRAPATUTAKO HERRITARRAK

» MARYAM FATHI, AKTIBISTA KURDUAREKIN ELKARRIZKETA

» ARGAZKI ERREPORTAJEA: MENDIZ MENDI EUSKARA IKASTEN






berria ren app-a

beti eta edonon,
harian

Osoa • modernoa • bizia



App-ean ere,
berria *laguna* **gehiago da**

berria.eus/berriaaplikazioa

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil

IRITZIAK

- 18 Asier Blas
- 19 Iñaki Murua
Edu Zelaieta
- 20 Ramon Etxezarreta
- 21 Angel Erro



Frankismoan Zamorako apaizentzako kartzela estreinatu zuenetako bat da Alberto Gabikagojeaskoa. (ARGAZKIA: ZALDI ERO)

- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIA KOMUNITATEA
- 44 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENEKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
MARYAM FATHI
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Alberto Gabikagojeaskoa: "Eliza frankismoaren zutabe zela konturatu, eta botatzea erabaki genuen" / Miel A. Elustondo
- 22 | Argia Eguna: Hurrengo puntada emateko gogotsu / Itsaso Zubiria Etxeberria
- 30 | Erentzun ikastola: Praktikaren bidetik, gaitasunak barneratzen / Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
- 34 | Barnetegi ibiltaria: Euskaraz bizi nahi dugu / Dani Blanco
- 38 | Marwan Abdulal: "Israel da Al Qaeda eta Estatu Islamiarraren aita Ekialde Hurbilean" / Ibai Trebiño
- 45 | Kau Kori Kura: "Izpiritu libreko artisten zain nago" / Kepa Matxain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARU DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Ainhoa Ortega, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iosu Alberdi, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:
Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.





PANORAMA

Dispertsioaren aurkako Udazkenfest

Festa eta aldarrikapena batu dituzte Gasteizen, euskal presoek sakabanaketa politika amaitu dadila eskatzeko. Egun osoko egitaraua osatu eta hau aurrera ateratzen 225 boluntariotik gora aritu dira lanean. 40 minutuko bisitak egiteko ehunka kilometro egin beharrak eragiten duen neke, kostu ekonomiko eta desanimoaren aurrean, "pilak kargatzeko" eguna izan dela adierazi dute antolatzaileek. Sarean ere gaia mugitzeko balio izan du ekimenak, #SaKKbanaketa traola Espainiako Estatuko traola erabilienean zerrendan sartzea lortu baitute.

Argazkia: Mikel Saenz de Buruaga

“Sekula ez dugu hain emaitza txarrik izan EAEn, egin genituenak egin arren”

Felipe González

“Felipe González tartean egonik, Pedro Sánchez banintz bizirik ateratzearekin konformatuko nintzateke”

Antonio Saceda
@sacedator

“Bizkaian galdutako eserlekuarekin, azkenean PSOE ez da gehiengo absolutura iristen (gehiengo absolutua EAJrekin). Hemendik aurrera, akordio zabalagoak lortu beharko dira, askok harrokeriaz agertzen zuten *rodilloa* alboratuz”

Jokin Melida (EH Bildu)

“EAJ akordioak egiteko eta adosteko prest dago, bereziki Euskadi nazioa dela uste duten guztiekin”

Andoni Ortuzar (EAJ)



AP FOTO/LUIS BENAVIDES

Bake akordioaren aurka bozkatu du %50,2ak Kolonbian

Argia
@argia

Aurreikuspen guztien kontra, Kolonbiako Gobernuak eta FARC talde gerrilariak lortutako akordioa berrestearen aurkakoek irabazi dute erreferenduma, botoen %50,2arekin. Bake prozesuaren alde egin dute bozka eman duten herritarren %49,7k. Emaitza botoetara eramanda, 6.424.385 kolonbiarrek akordioaren aurka bozkatu dute eta 6.363.989k alde. Hau da, 60.000 botoen aldearekin irabazi dutela aurkakoek, Alvaro Uribe lehendakari ohiaren (argazkian) inguruan bildutakoek. Uribe Kolonbiako lehendakaria izan zen 2002tik 2010era eta bere agintaldia FARCen aurka izandako gerra jarrera gogorragatik nabarmendu zen.

Datu adierazgarriak

Datu oso esanguratsua parte-hartze txikia izan da, botoa emateko eskubidea zuten herritarren %37,4k baino ez baitu parte hartu kontsultan. Eta aipatzekoa da, halaber, aurkako eta aldekoan banaketa lurraldean: mende erdiko gatazkak kolpatu dituen eskualdeek bake akordioaren alde egin dute, eta eragin gutxien nozitu duten lurraldeek aurka.

Plebisituak egoera oso berezia zabaldu du orain eta kolonbiar agintariak ikusi beharko dute nola bideratu prozesua, ez baita aurreikusten akordioaren hausturarik. FARCEk adierazi du egoerari aurre egiteko bitarteko baketsuak bakarrik erabiliko dituela.

“Haurrak izaten segitzeko eman digun bide luzea zor diogu Imanol Urbietari”

GARI BERASALUZE, IDAZLEA

83 urterekin hil da Imanol Urbietak abeslari eta irakaslea. Berasaluzeren hitzetan, “euskarazko telebistatik, pailazorik eta haur abestirik ez zegoenean haur izan ginen milaka euskaldunen haurtzaroa ezin da ulertu Imanol Urbietak gabe. Haurrak izaten segi dezagun eman digun bide luzea zor diogu. Bere abestiekin, txoriak gabela sinetsi dugu, kateak apurtu behar direla ulertu, indio txikiekin jolastu, bakarrik eta libre ibili, herri bat osaturik euskaraz bizi”. **BERRIA (2016-09-29)**



HIZKUNTZA BAT EZ DA GALTZEN
DAKITENEK HITZ EGITEN EZ
DUTELAKO, HAREN LIKIDAZIOA
PROGRAMATURIK DUTEN BI
ESTATU ETSAIREN MAKINA
RIAK HIZTUNAK ISILARAZ
TEN DITUELA KO BAIZIK



Eman
egoa
Euskaldunari

SK

H



@SHERWOODFOTO

Turistez betetako itsasontzi erraldoien porturatzea blokeatu dute Venezian

Sara Arruabarrena Azkarate

@s8ara

Egunero milaka turista eramaten dituzten itsasontziak ingurumenean eta hirian eragiten ari diren kalteez kezkatuta, #NoGrandiNavi lelopean festa eta aldarrikapena uztartu dituzte Venezian, gurutzatzen porturatzea debekatzeko eskatuz. Itsasoz, 30.000 turista iristen dira egunero goi-denboraldian Veneziaara.

“Ez dugu gauzez hutsik egongo den turisten hiririk nahi; arnasa hartzea posible den hiria nahi dugu”, azaldu du ekintza antolatu duen Generation 90 mugimendua. “Hiri errealean biziko garen azken belaunaldia izango gara agian, etxebizitza eta lana bilatzeak edo eguneroko bizitza kalean egiteak normala izateari utziko baitio”, gaineratu dute. Mugimenduko kideen esanetan, San Marko plazara joan, *selfie* bat atera eta barkura bueltatzea da turistek egiten dutena. “Disneylandiara baletoz bezala jokatzeko dute, baina batzuentzat bizitokia da Venezia”.

Abuztuan *Turistak kanpora! Hiria suntsitzen ari zarete* lelodun kartelak zintzilikatu zituzten Venezian. Nazio Batuen Erakundeak urte hasieran ohartarazi zuen 2017rako Venezia gurutzatzen

porturatzea debekatzen ez bazuen, desagertzeko bidean dauden hirien zerrendan izango dela, masifikazioa, kutsadura edota paduren higatzea tarteko.

Xuban Zubiriak ARGIAN idatzitako *Turismoak itoko du Venezia* erreportajearen (2517. zenbakian) emandako datuen arabera, azken urteetan 100.000 biztanle galdu ditu hiriak, turismo ereduak hirian aukerak gutxitu eta bizimodua izugarri garestitu baitu. Egungo 2.400 hotel egituretatik epe ertainean 50.000ra igarotzea aurreikusten da eta veneziarrak kezu dira, erdigunea hotelek eta turistek begirako jardunek jan dutelako, eta periferiara bizitzera joan behar izan dutelako bertako herritarrek.

Donostian ere, gaia aztergai

Euskal Herriko zenbait tokitan dugun turismo ereduarekin ez dugu jarri du hainbatek. Donostiako Alde Zaharreko bizilagunak, adibidez, azken boladako turista saldoarekin kezkatuta daude, bertako bizimoduan, zaratan, salneurrietan... eragin duelako eta auzoko nortasunari kalte egin diolako (denda eta saltokietan, batez ere). Eneko Goia Donostiako alkateak berak esana da: “Iritsi da momentua turismo ereduaren benetan aztertzeko, gogoeta bat egiteko eta mugatu ere ezartzeko”.

EKONOMIAREN TALAIAN

Bankia-Can, ustelkeria bera



Juan Mari Arregi

Espainiako Auzitegi Nazionalen hasi da “black txartelen” makro-e-paiketa. Bankiako 65 zuzendari eta kontseilarik (PP, PSOE, IU, CCOO eta UGT) erabili zituzten euren probetxu pertsonalerako. Txartel opaku horiekin, Rato ministro ohia eta Caja Madrideko presidente Blesa buru zituztela, zuzendari horiek 15,5 milioi euro gastatu zituzten. Milioi horiek Bankia finantza taldearen kontura fakturatu zituzten, honek 22 milioi euroko laguntza publikoak behar zituen bitartean.

Euskal Herrian CAN Nafarroako Kutzaren kasua daukagu. Hemen ez dira gastu pertsonalak egiteko horrelako txartelak aurkitu. Baina dieten kasua ezagutu dugu. Horien bidez, politikariek euren soldata biderkatzen zuten bileretara joateagatik, teoriarik euren kontrolatu beharreko erakundea hondamendira zihoan bitartean. Egon dira Bankiako gogorazten diguten beste gastu batzuk, CANek beste enpresa batzuei kobratutako fakturak, esaterako (luxuzko hotelak, jatetxeak, bainuetxeak, bitxiak, gama altuko autoak...). Faktura horiek Nafarroako Parlamentuko ikerketa batzordearen eskutan daude, baita Miguel Sanz eta Enrique Goñik erabiltzen zituzten kontu eta txartelak ere.

Bi adibideok, Bankia eta CAN, botere publikoak kontrolaturiko erakundeetan izandako ustelkeriaren isla dira, euren hondoratzea ekarri duen ustelkeria. Eta izebergaren punta besterik ez dira, horrelako erakundeetan izandako politika ustelaren zati txiki bat. Arduradun politiko eta sindikalek, bai eta kudeatzaileek ere, lapurtutakoa itzuli beharko lukete eta inhabilitatu egin beharko lituzkete horrelako enpresa publiko edo erdi-publikoak administratzeko.



PAULINE BAROU

Ayotzinapa, bi urte erantzunik gabe

MEXIKO. Mexikoko Iguala hirian sei pertsona hil eta 43 ikasle desagerrarazi zituzten 2014ko irailaren 26an, baina argitu gabe dago zer erantzukizun zehatz ukan zuten polizia federalak, militarrek eta narkotrafikanteek. Bi urteotan aitzinatu den bakarra senideen justizia gosea da. Erasoen bigarren urteurrenean 30.000 pertsona bildu ziren hiriburuan senideak sostengatu eta justizia aldarrikatzeko, eta bide batez, Enrique Peña presidenteari "kanpora!" oihukatzen.

Egia Euskaraz estiloa hedatzen ari da

Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Euskaldunak aktibatzen donostiarren egitasmoak arrakasta izan duela dirudi. Donostiako Piratek eta añorgarrek kopiatu zuten, eta udazken honetan antzeko ekimenak izango dira Hernanin, Lasarte-Orian, Agurainen eta Astigarragan.

Konpromisoa

Euskaldunak eta erdaldunak, biak, ari dira izena ematen. Lehenengok zin egingo dute goize-tik gauera euskaraz egiten saiatuko direla. Erdaldunek berriz, bidea erraztuko diete euskaldunei.

Noiz arituko dira

Hernani: Urriaren 15etik azaroaren 26ra.
Lasarte-Oria: Urriaren 23tik abenduaren 3ra.
Agurain: azaroaren 8tik 11ra.
Astigarraga: azaroaren 26tik abenduaren 3ra.

Helburuak

Hizkuntza ohiturak aldatzea ez dela hain zaila sinestea; uste baino gehiagok euskaraz dakiela edo ulertzen duela ohar-taraztea; euskaldunek elebakarren kontzientzia piztu dezaketela ulertzea.

INDARKERIA



%2,11

egin zuten gora iaz genero indarkeriari lotutako auzibideek, EAEko Fiskaltzaren memoriaren arabera. 5.800 auzibide abiarazi ziren guztira.

549

dira seme-alaben erasoak sufritu dituzten gurasoen kasuak 2015ean (2014an 495). Seme-alabei erasotzen dieten gurasoen kopurua ere igor da: 407tik 472ra.



EGIA ETA JUSTIZIA

Pasa den irailaren 27an, Francoren erregimenak Angel Otaegi nuarbetarra hil zuela 41 urte bete dira, eta haren hilketa argitzea eskatzeko kereila kriminala jarri du Otaegiren familiak. Erantzuleak zeintzuk diren argitzea eta horiei ardurak eta erantzunkizunak eskatzea nahi dute.



IZENORDE NEUTROA

Mugimendu feministak 1960ko hamarkadan proposaturiko izenorde neutroa hiztegian jaso du Suediako hizkuntza akademiak. Generoa esateak garrantzirik ez duenerako, transexualak izendatzeko edota bi generoetako inorekin identifikatuta sentitzen ez denentzako erabili ohi dute izenordea.



ETXEGABETZEA

Beste etxegabetze bat eman da, oraingoan Gasteizko Zabalzana auzoan, aurreikusita zuten moduan. Emakume bat eta bi ume kaleratu dituzte alokairuan bizi ziren etxetik.

Ez Ponpeia, ez Gernika: hau Alepo da, mundu gerra baten epizentroa



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

2,1 milioi biztanle 2004ko erroldan. Alepo da munduko hiririk zaharrenetako bat, Kristo Aurreko seigarren milurtetik gaurdaino etenik gabe biztanleak eduki dituen. Da? Zen. Ekialdeko auzoak matxinoen kontrolpean, mendebaldekoak gobernuarenean, UNESCOk gizateriaren ondare izendatutako hiria suntsitu dute, zepoan harrapatutako populazio zibila satorren gisa bizirautea behartuz.

Sare sozialetan zabaldu zen oihua bi-deoz lagunduta irailaren 20an: "Hau ez da Ponpeia, hau Alepo da". Ez, ez zen Vesubio sumendiak jaurtitako errautsa haur hil eta zaurituak estaltzen zituena, Errusia eta Siriaren hegazkinek jaurtitako bonbek eragindakoa baizik, beren lehergai txit indartsuek eraikin handi osoak birrintzean.

Ponpeiakoa naturak eragindako txiki-zioa izan zenez, hobe Alepo XX. mende-ko gerretan martiri bilakatutako hiriekin alderatzea. Frantziako enbaxadore François Delattre esan du: "Alepo da Siriako gerran, Sarajevo izan zen Bosnia-koan edo Gernika Espainiakoan".

Siria eta Errusiako agintariekin, aldiz, bestelako paralelismoa aurkitu diote Alepokoari: Stalingrad, II. Mundu Gerran alemanen inbasio ustez geldiezinak setiatua, sobietarrek amore eman gabe defenditua, azkenean nazien porrotaren hazia erein zuena.

Siriako gerran lehiatzen diren bi aldeentzako badaukan arren epika hori, Alepoko triskantzaren odolezko prezioak hunkitu behar luke mundua. Nazio Batuen Erakundetik humanitatezko gutxienezko legeak ez betetzea aurpegiaratu diete Mosku eta Damaskoko agintariei. Ban Ki-moonen adierazi zuen lur jota utzi zutela iraileko azken asteburuko sarraskien berriek. AEBek eta Errusiak itundutako tregua laburra deusetan geraturik, Baxar al-Assaden militarrek Alepon hasitako ofentsiba militar berriaren kalteez ari zen.

Abuztuan gerrak gaiztotzera egin ostean Turkiako armadaren inbasioarekin, iraileko menia neke handiz negoziatuta hitzartu zuten Sirian eskua gero eta barnago sartzen duten AEBek eta Errusiak. Hasieran, 13tik aurrera tiroak erabat ez itzaltzea gorabehera gatazkan interesak dituzten alde gehienak onartuz zihoazen ituna, Damaskoko agintariak, Golkoko monarkiak, OTAN... Ez luzarako, ordea.

Egun haietan Teherango CSR Ikerketa Estrategikoetarako Zentroaren webguneak galdetzen zuen Afifeh Abedik sinatutako analisisian: "Errusiaren estrategia Alepon: militarra ala politikoa?". Iraniarrek ulertzen zuten AEBak eta Errusia Siriako gerraren inguruan adostasun batera hurbiltzen ari zirela, eta bereziki Alepo hiriarri zegokionez.

"Analista ugarik uste dute -zioen Abedik- Alepoko gudua hain dela garrantzitsua ezen eta baldintzatuko baitu Siriako krisia bere osotasunean; hala ere, oso gudu konplikatu ere gerta daiteke". Eta Errusia ez zuen ikusten korapiloa askatzeko prest; edo hiri hori askatzeko ez zuelako gastu handiegirik egin nahi, Siriako atal garrantzitsuagoak -funtsean Damasko eta Tartuseko base militarra- ondo kontrolpean zeuzkalako, edo Alepo airetik erasotzeak biktima zibil asko eraginez nazioarteko irudi txarra ekarriko ziolako.

Irailaren 17an gertatu zen seinale gaiztoa. Deir Ezzor hirian AEBen hegazkinek Siriako armadari eraso eta ia zientzako bat soldatu hil zizkionean. Washing-



tondik azkar argitu nahi izan zuten deskuido bat izan zela, gudu-zelaitik iritsitako informazioak analizatzean egindako pettoaren ondorioa. Beste aldetik bestelako interpretazioa egin zen: Siriako ekialdea ia osorik kontrolatzen duen Estatu Islamiarrak Deir Ezzor setiatuak dauka eta AEBek Assaden soldaduak jipoitzean adierazi nahi zuten Siriaren zatiketa egonkortzen laguntzen ziela islamistek. Probokazio bat.

20an heldu zen erantzuna, Umm al Kubrako eraso: tregua baliatuz populazio zibilarri laguntzen ari ziren Nazio Batuen zerbitzuko kamioiak eraso zituzten. Nork? Errusiarren lana izan da, dio mendebaldeak. Errusiak, ukatu. Bi egunen buruan hasi da Alepoko ofentsiba. Ekialdeko auzoetatik matxinoak eliminatzera infanteria bidali aurretik, hegazkinek airetik txirtxilatatu dute horietako eraikin oro bonbaka.

Leize morala, mundua adinakoa

Alepon jokatzeko da hein handi batean Siriako gerra, ados agertzen dira analista gehienak horretan. Herialdeko hiririk handiena, eta benetako hiriburu ekonomikoa, Baxar el Assaden kontrako matxinadatik aparte geratua, Damaskok osorik berenagatzen baldin badu nabarmen utziko du gobernu ez dagoela bihar-etzi erortzeko. AEBek, OTAN, Israel eta Golkoko potentziek lagundutako matxinoentzako muturreko galanta. Baina horretarako... Alepo osorik kontrolatu behar du el Assadek.



Ofentsiba berriaren lehenbiziko hiru egunetako bonbardaketetan 200-300 hildako eta askoz jende gehiago zauritu dute. Ospitaleak, bizilekuak, azpiegiturak oro daude eraitsita. Setioaz gain bonbak, hornidurarik ez da kasik iristen Alepoko ekialdeko auzoetara. NBEk Siriarako izendatu bitartekari Staffan de Misturak salatu du iraileko azken zortzi egunak izan direla Siriako gerrak sei urteotan ezagututako gogorrenak.

Damaskoko tropei bidea errazteko hegazkin errusiarrek egindako bonbardatze sistematikoak dira De Misturak salatu dituenak: "Airetik erasotzen ari dira mota berriko armak erabiliz jende asko bizi den auzoetan, tartean sua eragiten duten bonbak, bunkerrak leheritzeko inguru guztia suntsitzen dutenak. Horiek jendez betetako lekuetan erabil-

tzea gerra krimentzat jo ditzakegu. Hau gelditu beharra dago".

Baina Alepoko irudiak direla eta NBEen biltzarretan Baxar el Assaden eta Errusiaren gerra krimenak haiztzen dituzten AEBetako, Erresuma Batuko eta Frantziako ordezkariak ezkutatu nahiko lukete haiek saldutako arma eta munizio sofistikatuekin beste hainbeste egiten dutela matxino islamistek. Siriako gerra propagandan ere jokutzen da.

Elias Khoury idazle libanotarrak, palestinarren alde lumaz gain armaz ere borrokatutakoak, "Palestina, Siria eta gure itsukeria" artikuluan dio Siriako gerrak erakusten duela munduaren etikaren neurria, 1948an Israelgo Estatua sortzeko ehunka mila palestinar kanporatzeak erakutsi zuen moduan. Nola jarraitu iraganeko masakreak ospatzen esanez "horrelakorik berriro ez!" eta

"Trapped" (Harrapatuak) ipini diote izenburu 'Japan Times' egunkariak argitaratutako argazki honi: bi gizonetan zaharrena bonbardaketak harrapatu du plazan gereziak saltzen. Hala ahalegintzen dira bizirauten Alepotik –Siriako beste hiri eta herri askotatik bezala– ihes egin ez duten herritarrek, geopolitika deitzen den potentzia handien arteko xake-jokoaren ekaitz guztien pagatzaile.

aldi berean isildu egunotan luzatzen ari den Siriako dramaz?

"1948an mundu osoak –dio Khouryk– mundu arabiarrek barne, ezjakinarena egin zuen [Nakbarekiko] edo gezurra esan. Gaur egun inork ezin du esan ez dakienik Sirian zer gertatzen den. Haur siriarren argazkiak bihurtu dira gure unibertsoaren lotsaren ikono, siriarrak hiltzea ohiko egin da indiferentzia bilakatzeraino eta milioika errefuxiatu, etxe gabe, gaixo eta goseturen sufrikarioak gure etxeetan sartu dira, baina hala ere ez dirudi horrek inor kezkatzen duenik. Leize morala mundua adinakoa da".

UNICEFeko zuzendariorde Justin Forsythek esan du: "Alepo hiltzen ari dira pixkanaka eta munduak begira segitzen du, orain gainera ura moztu dute, horra inhumanotasunaren azken erakusgarria". ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Alberto Gabikagojeaskoa

«Eliza frankismoaren zutabe zela konturatu, eta botatzea erabaki genuen»

1968a, urte beroa Euskal Herrian. Errepresioa latza, José Pardines guardia zibila eta Txabi Etxebarrieta hilak, Melitón Manzanos hila... Bitartean, Zamorako konkordatu kartzela estreinatu zuen orduko abade Alberto Gabikagojeaskoak.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Gazte joan ohi zineten apaiz seminariora. 10-11 urterekin. Ni, esaterako, Saturraranera eroan ninduten. Ni bizkaitarra, baina gipuzkoarrak ziren han gehienak. Bost urte egin nituen han, bi urte Gasteizen, eta beste bost Derion. Gure familia sinestuna zen –ama, oso–, eta nik, berriz, idealismorako joera neukan, erlijioaren bidez zetorrena, batik bat. Beste aldetik, Franco zegoen agintean, haren erregimena, eta errepresioa ere itzela zen. Nahiko isilpean kontatzen ziren gauzak. Ume ginen, baina bagenekien herriko andre bati, Nieves izena zuen, errizino-olioa eman ziotela eta ilea moztuta ibili zutela kalean. Eskolan, berriz, *Cara al sol* kantatzen genuen, baina geure modura. *“Impasible el alemán”*, adibidez, *“imposible el alemán”* kantatzen genuen. Guk ez genekien zer zen *impasible*, ez *ademán* ere!

Eta Saturraranen?

Biziera ez zen zarratua, pabilioi diferentek ziren eta batetik bestera joan behar izaten genuen. Kanpoan geunden, hondartza baten gainean, bertan egiten genuen futboleak, euskara diferentek ezagutzeko era izan genuen... Gipuz-

koarren *duroa*, *ogerlekoa* zen guretzat. Haien *bi paretak*, gure *horma biak*. Irakasleetan oso euskaltzale handia zen, adibidez, Andoni Basterretxea, edo Emiliano Iturraran.

Saturrararen, Gasteiz, Derio.

Estuena Gasteizen izan nintzen, komentuarien antza handiena hark zuen. Derion, Bizkaiko gotzain [Casimiro] Morcilloren garaian, zenbait irakasle Madriletik etorri ziren, eta bertokoak baino irekiagoak izan ziren. Askatasunez jokatu zuten gurekin. 1960an apaiztu nintzen, eta Ajuriako parrokiara bidali ninduten. Han izan nintzen 1969 arte, kartzelan egindako egonak salbu. Ajurian, herriarekin bat eginda egotea zen nire lana, eta horrez aparte, Herri Gaztedi antolatzea, adibidez.

Zergatik Herri Gaztedi?

Jendea kristautzeko era egokia zelako, gizatasunetik kristautasunera bidea egiten genuen, gaztetxoekin, eta ez hain gaztetxoekin. Aisiako ekintzak egiten ziren, eta haien gaineko gogoeta gero. Behin, jai bat antolatu zuten Herri Gaz-

tedikoei Ajurian, eta 60 polizia baino gehiago etorri ziren herrira, hura zer ote zen ikusten. Guardia zibilak ezagunak ziren, baina orduko hartan grisak etorri ziren. Baserritarrak ikaratuta zeuden, eta gu ere bai. Ajuria, Iurreta, Durango, Gernika, Areatza, Derion... Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat herritan zegoen Herri Gaztediren talderen bat.

Zer gertatzen da 60ko hamarkadaren hasieran apaizen artean? Meñikako abade Patxi Bilbao batek, esaterako, pulpitutik salatzen du alkate eta zinegotziek elizara bandera espainola sartzea. Zuk, Ajurian, Areatzan izandako zenbait atxilotze eta tortura kasu salatzen dituzu.

Gure izenak egunkarietan azaldu zirenak dira, baina abade mordoa ginen garai hartan borrokan. Esate baterako, 1960koa da 339 abaderen agiria, Euskal Herriko gotzainei bidalitakoa eta Francoren eta egunkari espainolen haserrea ekarri zutena. Maiatzean ateratu zuten, eta ni, berriz, ekainean apaiztu nintzen. Horregatik ez nago sinatzaileen artean, abade zirenak baino ez zutelako sinatu. Abade mugimendu itzela zegoen hemen orduko.



Alberto Gabikagojea Mentxaka

1936, Lekeitio

Apaiz izana, Zamorako konkordatu kartzela estreinatu zuen 1968an. Hilabete eta erdiko egonaldia eta gero libre irten, baina bertan zen berriro 1969an, eta hantxe eduki zuten 1976 arte, Franco hil ondoko urtera arte. Harrezkero hamabi urtez AEK-ko Didaktika Taldeko kide eta euskara irakasle izana, hainbat lan ekarri ditu euskarara. Tartean dira Charles Darwinen *Espezieen jatorria*, Eric Fromen *Askatasunetik iheska* eta George Santayanaren *Edertasun-sena*. Herri mugimenduetan parte hartuz ari da beti.

Abade mugimendua...

Baina ez zen abade mugimendua bakarrik. Ez Dok Amairu ere hor zen, eta haren eragin ikaragarria abadeengan eta herritarrengan. Ordu arteko kantu zaharrak utzi eta protesta kantuak zabaldu ziren. Julen Lekuona ere abade zen, eta Ez Dok Amairukoa, eta han da abade errepresaliatuaren kantua, *Hiltzaile bat bezala*. Hori zen giroa, eta Herri Gaztedi, JOC [Gazteria Langile Kristaua], HOAC [Ekintza Katolikoaren Langile Anaidia]... herriaren eskubi-deak eskatzen hasi ziren. Horrek ere eragin handia izan zuen abadeengan.

1964an pekoz gora jarri zuten zenbait gaztek Areatzako eskola; pintada eta gainerako. Guardia zibilak egindako atxilotetak etorri ziren gero. Zuk, atxilotuek jasotako kolpe eta tratu txarra salatu zenituen pulpitutik, domekako mezan.

64ko azaroaren lehenengoan izan zen, sermoia egin nuen Ajurrian eta Ibarur-in, bietan. Eta hortik etorri zen nire kontrako pertsekuzioa. Ordena Publikoko Auzitegiak prozesatu egin ninduen, propaganda ilegala aitzakia hartuta. Nik egindako sermoia, propaganda ilegala! Gero bai, zabaldu egin zen sermoia. Baten batek eskatu zidan, eta nik eman egin nion, euskaraz. Ondoren, itzuli egin zuten eta han eta hemen zabaldu zen, erdaraz, *Enbata*, EGI eta beste jende askoren bitartez. Zamorako liburua egin genuenean, berriaz, erdarazko testua hartu eta atzera euskarara ekarri nuen, orduko denborako bizkaieran ustez egingo nukeen moduan ipinita.

1965ean epaitu zintuzten: sei hilabeteko kartzela eta 25.000 pezetako isuna izan zenituen zigor.

Dueñaseko Trapako komentuan eduki ninduten lehenengo, hilabete eta erdian. Donejakue urtea izan zen, ordea, eta erdira ekarri zidaten zigorra. Abadeak komentuan egon behar ziren zigorra betetzen, Zamorako kartzela ez zegoen elizaren eta Francoren asmoetan. Baina Dueñasera jende asko etortzen zitzaidan bisitan. Beste leku batzuetara ezin joan zirelako-edo, ni ikustera etortzen ziren. Baina nik ez nuen komentuan nahi, abade izan nahiz ez, Francoren preso politiko nintzen, elizak ez zuen pribilegiarik behar, kartzelan nahi nuen. Egun batean, polizia etorri zitzaizkidan Zamorako kartzelara eramateko. Ni pozik, baina

Guardia zibila eta guzti

“Zamoran nengoela aita hil zitzaidan, eta Lekeitiora ekarri ninduten hiletara, guardia zibilek zainduta, eta haietako bati lotuta: nire ezker eskua haren eskumari lotuta. Herrikoak etortzen zitzaizkidan, eta elkar besarkatzen genuen, baina beso biekin nik, guardia zibilarena ere neurearekin batera hartuta, bion eskuak zauritu arte”.

Zamorako ihesa

“Klaustrofobia neukan, eta ez nuen tunel barruan lan egin. Handik ateratzen zen lurra non edo non bota behar izaten zen, eta huraxe izan zen nire lana. Egun hartan lurra kaxa batean sartu eta komuneko zulo jakin batetik botatzen ari nintzen, astiro-astiro. Zaintzaileak ere zaintzen genituen guk, eta han ari nintzen. Baina momentu batean ikusi nuen komunera zetorrela funtzionario bat. Komunak ez zeuden goitik eta behera guztiz itxita. Eta zer egiten du presoak komunean kaxa bete lur duela? Praxak jaisteko keinua egin nuen, eta funtzionarioak bira egin eta alde egin zuen. Eta eskerrak!”

fraideen bidez esan nien gotzainaren sinadura ekarri behar zidatela, komentuan bertan ezkutatu nintzen. Poliziak kanpoan, ni komentu barruan ezkutatuta, kartzelara eraman arte. Egun bi egin nituen ezkutatuta, notarioa ikusi nuen arte, gotzainaren agiria zekarrela, ni kartzelara eramateko baimenarekin. Horrela, gotzaina agintarien interesetarako konkordatu apurtzen agertzea nahi nuen.

Eliz agintarien oniritzia behar zelako abadeak kartzelara sartzeko.

Idealismo handiz egin ginen abade, herriarekin egon behar ginela sartu zigu-



ten. Gero, abade ginela, konturatu ginen Eliza frankismoaren zutabe inportanteetako bat zela, gu geu ginela zutabe hori, eta hura bota behar genuela erabaki genuen. Herria engainatzeko tresna nagusia zen Eliza, eta horretaz kontura zedin egin genuen lana.

1968an zinen Zamoran.

Hilabete eta erdi Dueñasen egin nuen, ekainaren zati bat eta uztaia ia osoa. Harrezkero Zamoran izan nintzen irailaren zortzi arte. Amurizarekin batera irten nintzen, hura hilabeteko isunarekin sartu zuten lehenengo aldi hartan.



“Nik aitzakia barik ikusten ditut oraingo gazteak, saiatuak, ondo prestatuak, nahiz eta erbesteratze ekonomikoa ere hor den”.

Goian, Julen Kaltzada, Josu Naberan eta Alberto Gabikagojeaskoa. Eskuineko argazkia Patxi Bilbao apaiz laguna epaitegira deitu zutenekoa da. Besteak beste hor dira Pedro Berrioategortua, Txomin Artetxe, Martin Orbe, Alberto Gabika, Ander Manterola, Jon Onaindia, Agustin Idoiaga, Jose Luis Jauregi eta Emilio Kortabarria.

Urte hartako ekainaren 7an Pardines guardia zibila hil zuen Etxebarrieta ETAko kideak eta ondoren bera hil zuen guardia zibiliak. Abuztuaren 2an, Gipuzkoako Brigada politiko-sozialaren buru Melitón Manzanos hil zuten.

Uste dut ordurako Zamoran hiru lagun ginela, Juan Mari Zulaika, Felipe Izagirre



“ZAMORAKO APAIZ-KARTZELA” (TXALAPARTA)
LIBURUTIK HARTUA



Ezkerretik eskuinera Josu Naberan, Alberto Gabikagojeaskoa eta Jon Etxabe, kartzelan.

eta hirurok. Ni hara eraman eta hurrengo egunean ekarri zituzten beste biak. Eskutitz bat jaso zuen bietako batek, esanez euren baserrian sagar bat erori zela. Baina baserririk ez zuten, sagarrik ere ez. Zer esan nahi ote zuen pentsatzen eta pentsatzen, azkenean asmatu zuten Manzanas hil zutela.

Irailen Zamoratik irten, eta Derioko apaiztegian itxialdian sartu zineten azaroan.

Batetik irten eta bestean sartu, kasik arnasa hartu barik. 70 abade, fraide eta jesuita ginen Derion sartu ginenok, azaroaren 4an. Eskutitz bat atera genuen herriaren aldeko Eliza aldarrikatuz. Hilabete inguru eutsi genion han. Abade batzuek ihes egin behar izan zuten, errepresioa itzela zen, gero eta handiagoa, orduko atxilotuek tortura eta tratu txar gogorrak jaso zituzten: Mario Onaindia, Jon Etxabe... eta 1969ko maiatzaren 30ean gotzaindegian itxialdia egitea pentsatu genuen.

Xabier Amurizaren bertsoak esaten du zein eta zein zineten itxialdian: "Bata Gabika, hurren Kaltzada, Naberan ondoren / Amuriza da laugarren / nor falta ete da hemen / guztion buru Nikola [Telleria] jarri behar nuen goren".

Eta gerra-kontseilura zuzenean Burgozera. Zamorakoa kontatuta dago li-

buruan [Zamorako apaiz-kartzela, Txalaparta, 2011], baina han egon ginen 1976ko martiaren lehena arte. Batera irten ginen Naberan eta biok. Zazpi urte pasatu nituen Zamoran. Irteeran, bila etorri zitzaizkigun senideak, Danbo [Luis Mari Danborenea] abokatua, herriko lagunak... Heldu naiz Lekeitiora, eta jendea zain, baina guardia zibilak ere bai, kalekoz jantzita, tabernarik taberna. Mola jenerala zen gure kalea orduan; herrian, Pulmonia kalea, portua eta plaza biltzen delako han eta sekulako haize korronea izaten delako. Heldu gara Lekeitiora eta han naroate. Jaisuten naiz autotik eta lehenengo besarkada, Enrike gozogilearena. Askatzen du guardia zibilak, kolpez jotzen du aurpegiari eta airean botatzen du. Sartu naiz etxerako, eta atetan hantxe senideak. Guardia zibilak muturka hasi ziren, eskularruak jantzita, barruan burdina. Jo dute nire anai eta matraila apurte diote. Nire lobak hori ikusi eta borrokan hasi zen guardia zibilekin. Kuartelera eroan zuten, nahiz eta libre utzi zuten. Ni, berriz, Zamoratik orduantxe irtenda, eta borroka haren erdian. Zer pentsatu ez nekiela geratu nintzen.

Harrezkero, AEKn izan zinen lanean urte askoan.

Oso interesgarria izan zen AEK-ko lana. Denetik egin nuen, eta denetik ikasi.

Errota
OKINDEGIA

☎ 94 683 01 29
ONDARRU



Azken hitza: Hil ala bizi

“Gasteizko apaiztegia nengoela dutxatuta nago ni kanpoan hamalau gradu zeroean egiten zuela. Bada, neguko dutxa hotza bezalakoa da kartzela: edo bertan geratzen zara, hilda, edo biziberritu egiten zaitu”.

Erabilerak behar zuela ardatz izan sartu genuen garai hartan, denbora gutxian jendeak berba egin behar zuela. Esku-zabaltasun handiko garaia izan zen: berdin irabazten genuen denok, gutxi, baina berdin, eta zahartzarokorik-eta barik. Horixe eskatuko nuke nik, orduan gazte-gazte zirenek AEKn egindako urteak kontatzea zahartzarokoan. Nik Gernikako taldearekin egin nuen lan, andrezkoak ziren gehienak, kategoria itzeleko jendea. Gustu handia izan da. Horrela egin liteke lan.

Herri mugimenduetan ere saiaturaz.

Pilo batean ibili naiz, han eta hemen. Lizarra-Garazin eta bestetan. Gogoratzen naiz Gernikan talde mordo bat biltzen ginela, alderdi politikoak eta bestelakoak. Baina PNV ez zen etortzen. Guk, hala ere, batzarra egin eta akta bidaltzen genion, eta etortzeko gonbita egiten. Eta, hala, etorri ziren arte, majo etorri ere. Lizarra-Garazi alferrik galdutako aukera izan zen. Lan handia egin genuen herrian, behetik gorako mugimendua


izan zen, serio egin genuen lan. Hura ondo izan balitz beste gauza bat izango genuen orain. Hogei urtetsu dira. Gure Esku Dago-rena ere lan ederra da, hori ere behetik gora etorri da.

Herrigintzan oraindik ere zu.

Bai, herri mugimenduetan, Gernika batzordean... Adin guztietako jendeak egin behar du ekarpena, bakoitzak bere neurrian. Nire edadean ere ekarpena egin ezinik ez dago, protagonismo barik, eta arreta geureganatu barik, baina ekarpena egin, gizartearen abiadarekin batera. Bada asko entzuten den aitzakia bat: “Oraingo gazteak, izan ere...”. Nik aitzakia barik ikusten ditut oraingo gazteak, saiaturak, ondo prestaturak, nahiz eta erbesteratze ekonomikoa ere hor den.

Hortxe zu, gazteen eta ez hain gazteen artean.

Bai, neure ekarpen txoa egiten saiaturaz beti, protagonismo barik, mugimenduetan baliatzen, gazteen artean eta adin guztietako jendearen artean. ■



ZVBEROA

**OPIL OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

Iñaki Deuna, z/g
☎ 94 683 30 60

Artabide, 24
☎ 94 683 19 14

ONDARROA (BIZKAIA)

Alternatibarik gabe EAJ garaile

Hauteskunde kanpainako tenore berdineko emaitzak izan ditugu igandean. EAJri inork ez zion erabateko oposizioa egin Lehendakari-tzarako alternatiba gisa aldarrikatzeko. Jeltzaleek ondo jakin dute eztabaidaren markoa definitzen eta inposatzen. Denek onartu zuten bere jokoa, denek hitz egin zuten kudeaketaz Espainiari begi bat edo bi jarriaz.

Ondorioa argia izan da, garaipen handia lortu du EAJk. Nahiz eta partaidetza jaitsi eta alderdi berri bat sartu Eusko Legebiltzarrean, jeltzaleek 13.000 boto eta bi parlamentari gehiago irabazi dituzte. 29 diputaturekin inbestidura erraza segurtatua dute, nahi izanez gero beste alderdien babesik gabe. Bestalde, legeak eta aurrekontuak aurrera ateratzeko, EAJk alderdi baten babesa baino ez du behar eta negoziatzeko lau ate ditu, horrek botere handia emango dio bere agenda eta politikak nagusitzeko edozein akordiotan. Inoiz baino gehiago euskal politikak EAJren inguruan pibotatu du.

EH Bilduk 17 diputaturekin arnasa hartu du. Espainiako azkeneko bi hauteskundeetako emaitzak amesgaiztoa baino ez zirela izan berretsita, Otegi oso irakurketa baikorra egin du, bidean 50.000 boto eta lau diputatu utzi dituzten arren. Urruti dago baina, 2012ko agertokia. Horregatik, EH Bilduk atera dituen emaitzak ulertzeko 2015eko foru hauteskundeekin alderatzea litzateke egokiena. Urte betean 18.000 boto galdu ditu, 1998an Euskal Herritarrok-ek (EH) atera zuen boto kopuru antzekoa lortzeko. Halere, badira diferentzia garrantzitsu batzuk, oraingoan Ezker Abertzalea EArekin eta Alternatibarekin doa koalizioan eta horrek nabarmen moderatu du bere diskurtsoa. Herri akordioak eraikitze adostasunaren espazioa murriztu da,



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Herri akordioak eraikitze adostasunaren espazioa murriztu da, agenda independentista eta ezkertiarren kaltetan. Beste diferentzia bat da EH Bilduk dituen emaitza desorekatuak eskualdez eskualde. 1998an EHeK boto dezente gehiago zituen Bilbo Handian, gaur egun galera hau EH Bilduk konpentsatu egiten du eskualde euskaldunagoetan irabazten duenarekin. Hau kezkatzeko datua da ikuspegi nazionala duen alderdi batentzat

agenda independentista eta ezkertiarren kaltetan. Beste diferentzia bat da EH Bilduk dituen emaitza desorekatuak eskualdez eskualde. 1998an EHeK boto dezente gehiago zituen Bilbo Handian,

gaur egun galera hau EH Bilduk konpentsatu egiten du eskualde euskaldunagoetan irabazten duenarekin. Hau kezkatzeko datua da ikuspegi nazionala duen alderdi batentzat.

Elkarrekin Podemos indartsu sartu da Eusko Legebiltzarrean, baina espektatibak ez ditu bete. Koalizio morea ez da gai izan 2015eko hauteskunde foraletan Ahal Duguk eta Irabazik atera ziztuzten emaitzak errepikatzeko, 20.000 boto inguru utzi dituzte bidean eta espainiar hauteskundeetan lorturiko botoen erdira ere ez dira iritsi. Hautagai ahulek eta mezu lausoez ez dituzte lagun izan, nahiz eta arazo nagusia Espainia osoko alderdi guztiek pairatzen duten berdina izan duten: partaidetza baxua.

Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan inoiz izan dugun partaidetza baxuena 1994koa izan da, orduetik aurtengoa da kaskarra %62,26rekin. Borroka ardatz nazionalen tentsiorik ez dagoenean, alderdi espainoliek zaila dute beren hautesleria mobilizatzea. Horregatik, kaltetu nagusia PSE-EE izan da, baina baita PP ere. Bien artean botoen %22,1 lortu dute eta Eusko Legebiltzarreko ordezkarien %24. Bestalde, erabakitze eskubidearen aldeko botoak %73,71 izan dira eta parlamentuko eserlekuen %76. Eusko Legebiltzar autodeterminazio zaleena izango da hurrengo legegintzaldikoa. Halere, gauza bat da alderdiek gai horren inguru duten posizio politikoa eta beste bat da erabakitze eskubidea lehenesteko borondatea. Ez dirudi Elkarrekin Podemosek izan duen emaitzarekin gai hau lehenesteko asmoz egongo denik eta antzera pentsa daiteke EAJri buruz. Izan ere, horrelako gaiak mahai gainean jartzeak tentsioa igoarazi dezake eta egun EAJk duen hegemonia politikoa galtzeko aukerak sorrarazi. ■

Umorez bizi!



Iñaki Murua
IRAKASLEA ETA
BERTSOLARIA

Harrizkoak bagina bezala gabiltza bizitzan, keinu sinpatikorik gabe, goxotasuna adieraztea eta ahulezia erakustea gauza bera direlakoan. Trenak bagina bezala, beti *muturje* berarekin!

Adibidez, horretarako apropos jarritako ekinaldietan barre egitea ongi ikusita dago. Baita kamera ezkutua jarri eta jendearen hanka sarzteekin nahiz jende horri berari barre egitea ere. Eta kontuz serio jarraitu, programaren batek barreak txertaturik dituen unean!

Nik uste, ohiturazko jardun edo bizio nahiz entrenamendu beharko genukeela, umore biltzailearena. Zenbat hitzaldi, klase, mitin, aurkezpen irentsi behar izaten dugun umore tanta bat bera ere gabekoak, hotzak, negukoak! Hara, gure herriko apaiz bati *Negus* deitzen genion, ez dakit beltzogatik hala neguak lan gehiago ematen ziolako.

Kontua da ideiak modu erakargarrian transmitzeko premia barneratzea. Behin, emakume bat nor zen galdezka ari zen Lazkao Txiki eta batek azaldu zion "hori, beltzezko hori? Viuda da, halako ta halakotakoa..." eta Lazkao Txikik: "Viuda e, bi uda, negu bat baino hobea! Hik ez al dakik alarguna esaten?". Hori bai eleganzia eta elejantzia!

Duela hiru urte Angel López mexikar inprobisatzaileari, aurrez jakinarazi gabe, bere bertso-ibilbideari buruzko hitzaldi bat eskatu zioten.

Honela, taldekideek saioetara joateko, bi eguneko bidaiak oihanean oinez egiten zituztela esan ziren. Behin, saio batetik bueltan, mendiko etxola batean otordua egin omen zuten eta ordaintzeko garaian, ezetz, egin zegoela, etxeoandreak. Orduan, esker onezko bertso batzuk kantatu zizkionten, baita emakumezkoa hunkituta negarrez hasi ere. Angelek jakin nahi izan zuen ea zerk hunkitu zuen hainbeste eta emakumezkoak: "Azokara bidean, zama garraioan lan guztietan lagun nuen astoa, urrea baino finagoa, joan zen hilean akabatu zitzaidan eta zure kanta-erak, haren irrirtzia gogorarazi dit!". A zer lezioa eman zigun bat-batean. Bere buruari horrela barre egiten dakiena bada nor!

Umorea erabiltzeko joera bagenu, maitatuago gineteke, baita Osakidetzak ere, kuttunago gintuzke edo behar gintuzke; gaixo hobek izango gineteke, txakalaldi gutxiago izango genuke, eta gainera, hobeto eramango genuke bizitza gaitza.

Lehenengo batean, gure eskolan jarri duten komun berrian sartu ginen parkinsona eta biok, argia pizteko mugimendua antzematen duen foto-zelula horietakoa daukan komunean. Sartu ginenean piztu zen eta irten arte ez zen itzali. Barrer aritu nintzen abantailaz konturatzean; sano daudenak argia itzalitako bakoitzean, ilunpetan, esku edo besoekin imintzio xelebreak egiten irudikatuz. ■

Ez bilatu egiairik dakizun horretan



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Sophia de Mello Breyner Andresen idazle portugaldar zenduari irakurri diozu bertso-lerroa: "*Não procures verdade no que sabes*". Hala ere, egiairik *prokuratze*ko tentazioan erori zara. Berriz ere. Zure ustezko instintuaren alde. Zure ekintza ugariren kontra.

Datuetan topatu nahi izan duzu egia aseptikoa. Irrati bidez ailegatu zaizu lehenbiziko entrega: Europar Batasuneko barne ministroek duela urte bat adostutako asilo eskaeren %3,1 baino ez dute bete bertako estatuek; hots, 2015eko udan Siriako gerratik ihes egindako errefuxiatu gehien-gehienek ez dute Europar Batasunean sartzerik izan.

Internetera jo duzu gero, zenbaki itxurako pusketa egiazkoen bila: Hungariak eta Poloniak ez dute gerratik ihes egindako pertsona bakar bat ere hartu, Eslovakiak hiru, Bulgariak sei, Txekiak hamabi eta Kroaziak hamalau. Ehuneko hizkuntzara itzulita, zu bizi zareneko Espainiak esleitua zuen kopuruaren %1,4 besterik ez du hartu, zure jendaki zenbait bizi direneko Frantziak %5,3. Airean gelditu zaitzu galdera: eskuzabalago jokatuko ote genuke euskaldunok Euskal Herri independente batean?

"Ez bilatu egiairik dakizun horretan". Aurkikuntza, maiz aski, mingarria izaten da. ■

Independentzia XXI

Elkarrekin Podemos zen hauteskunde haueko berritasuna eta, berritasuna izateko, neurria eman egin du, hamaika diputatu; baina udaberrian zeruko atarietara jaso zuten milaka boto haietatik 150.000 hauteslek galdu diote duela hiru hilabetekoaren memoria. Hauteskunde orokorretatik autonomikoetara egon daitekeen ezberdintasun politiko hutsa baino atxikimendu mota ezberdina galdu ote duen nago, baina ez naiz kapaz zehazteko.

Berritasuna du aitzaki Idoia Mendiak PSE-EEren gainbehera geldiezia esplikatzeko. Arrazoi du, etxean gelditu ez zaizkion botoetatik asko indar berri horrek eskuratu ditu. Baina arrazoi hori teknikoa da, aritmetikoa, inolaz ere ez politikoa. Politikan galdetu egin behar da indar berri horrek zergatik eragin dien eskuinekoak ez diren alderdiei. Berritasunetik hara badago arrazoiren bat oso larria, kanpainaz gandi, legegintzaldian bidaide izan duen alderdiak gora egiteko eta berritasunaren mesedetan galtza-zorroak eta dena galtzeko. Erantzun politikorik ematen ez zaion bitartean Euskal Herriko sozialismoaren gainbeherari galga jartzea oso izango da zaila.

Eta bestea ezker abertzalea, nago ez duela asmatzen bakardade politikoan gelditu dela ala txapeldunorde



Ramon Etxezarreta

PSE-EE-KO KIDEA

@retxezarreta

Idoia Mendiaren arrazoi aritmetikoa da, inolaz ere ez politikoa. Politikan galdetu egin behar da indar berri horrek zergatik eragin dien eskuinekoak ez diren alderdiei

gelditu dela erabakitzen. Biak dira egia, bietarako ere berritasun ospetsu hori jarri dute aitzakia, baina erantzun politikoa, oraingoz behintzat, suertatu zaion bakardadea da. Tokitara joan zaio nazionalismoaren diskurtsoan azken urteotan izan duen nagusitasuna; ikus-

kizun datozen urteotan nazionalismoak egingo duen bilakaera. Gau elektoraleko unerik loriatsuenean, politikoki larrienean alegia, inor hasi zen amestetan Elkarrekin Podemos, PSE-EE, eta behar ziren etsai guztien bilketan. Eskuina atera da gehiengo absolutuarekin, EAJ-PP, bada ez bada ere ahaztu behar ez dena.

Zer merezimendu aitortu dizkio EAJ-ri euskal hautesleriak? Esango nuke gizarte baketsu bilakatzen ari garen honetan inolako tentsio larririk eragin ez izana eta herri honetan gauden sentibilitate nagusien arteko desorekarik sortzen saiatu ez izana. Estu, larri eta haserre bizitzea baino askoz hobea dela ezberdina aitortuz egitea. EAJ jabetu dela esango nuke independentismotik, aldebakartasunetik, zenbat eta urrutia-go hainbat eta erantzun hobea ematen diotela herritarrek, eta XXI. mendeko independentismoa asmatu du. Jakin egin behar zertan datzan hori eta zer diferentzia dauden bien artean. Horretan emango dugu hurrengo legegintzaldia, nazionalismoaren baitako bi diskurtsoak bereizten eta, herritarren borondatez, XXI. mendeko hori dela nahiago duten ustea sendotzen. Gehiengo sindikalaren baimenarekin beti ere, horiena ere ez ahaztekoa izan da. ■

Xilaba

XIBEROA, LAPURDI ETA BAXENABARREKO

BERTSULARI XAPELKETA

2016

www.bertsozale.eus/xilaba

BAIGORRI

Plaza Xokon
Urriaren 8an, 17:00etan

Aurkezlea: Bixente Hirigarai

+ Puntuazioaren arabera:
Bigarrena / Laugarrena / Seigarrena / Zortzigarrena

Sustrai
Colina

Odei
Barroso

Lurperatuak

Nork bere hildakoak lurperatzea izaten da iraganarekin bakeak egiteko irudietako, moduetako bat. Beste bat, baina luzera ez hain eraginkorra, iragana ahaztea izaten da. Baina batzuetan ahanzturaren apologistei ahazten zaie nork bere hildako ehortzi gabeak ahaztu behar dituela (edo ahazten ikasi, edo ahazten saiatu). Beste edonoren ahanztura ez da iraganarekin baketzearen seinalea. Iruñean, esaterako, Eroritakoen Oroigarria bando bakar bateko eroritakoez husteko ekimena –legearen aginduz aspaldian egin beharrekoa baina legearen gibelamenduz orain arte ezikusia egina– abian jarri denean, hildakoak, alde batekoak zein bestekoak bakean uzteko aldarriak hasi dira. Bakean uzte horrek hildako batzuk leize, zulo eta bide bazterretan, identifikatu gabe, eta beste batzuk ohorezko hobietan mantentzen baditu ere.

Espainiako Gerra Zibileko lurperatze guztien artean Federico García Lorcarenak beti harritu nau. Familiaren aurka jardun behar izan dute gorpua lokalizatu nahi izan dutenek. Oinazeak milaka erantzun ditu, baina halere honakoa ulergaitza egiten zait oraindik ere. Egunotan hirugarren aldiz ekin diote poetaren hezurak bilatzeari, lekukotasun eta ikerketa berrien abaroen. Berrero ere familiaren adierazpenak bilatu dituzte hedabideek eta berrero ere esan dute nahiago dutela Lorcak berarekin batera hildakoen ondoan jarrai dezala, hil-lagunekin patua konpartituta. Maiz galdetu diot neure buruari zeren beldur diren. Oinordetzan jasotako beldur zahar bat ote den, edo erosotasun hutsa. Osaba zaharren literatur lanari itzal mediatikorik egin nahi ez izatea, hilobi bisitagarria duen artistak bere lanarekin atsegin hartzeko nekeaz libratuko bagintu bezala. Inoiz pentsatu dut bere seni-



Angel Erro

IDAZLEA
@angelerro



Antton Olariaga

dearen alderdi bat gorderik nahiago dutela.

Test labur bat oroimen historikoaz. “Iraganari bueltaka ibiltzeko gurrpil zoroan ez da erori behar”. Nork esan du? EH Bilduren hautagai batek, duela 20 urtekoaz galdetu diotenean, ala PPko hautagai batek, duela 80 urtekoaz galdetu diotenean?

Joan den irailean Nafarroako Gobernuak Paco Etxeberria auzitegi medikua omendu du oroimen historikoaren alde egindako lanagatik. Gerra zibileko gorpua aurkitzeko egindako lanaz gain, tortura berriagoei arreta eman eta dokumentatu izanak osoago egiten dute bere figura eta horrelako omenaldien merezidunago. Oroitu eta ohoratu behar ditugu oroitzera laguntzen dizkigutenak.

La sima irakurtzen ari naiz, Jose Mari Esparza egileak bere egunean Paco Etxeberriarekin batera aurkeztu zuen saioa, egunotan gaurkotasuna berreskuratu duena, Etxeberria doktoreak liburuko leizetik, hain zuzen, atera dituelako, asko kostata atera ere, Gerra Zibila hasi berritan, nahasmeneko une horietan, bertara jausitako Sagardia familiaren kideak (ama haurduna eta sei seme-alabak), nire hasierako usteaz beste, ez arrazoi politikoengatik hilda, baina ez horregatik inolako arrazoirik gabe. Elkarrizketa berri batean, Esparzak datu eskuratu berri bat ekarri du, Juana Josefa Goñi Sagardia emakume ederra izateaz gain, beraren familiak sorgin fama bazuen herrian. Nahi gabe ere, berehala gogora ekarri dit Pío Barojaren *La sima* ipuinaren giroa. Sorgin famako andre batena izandako aker batek ihes egiten die aitona eta biloba diren bi artzainei. Animaliaaren atzetik, leize batetik behera erori delakoan, zuloan erortzen da mutikoa ere eta, superstizioak jota, herriko inork ez du haren bila jaitsi nahi. ■

ARGIA EGUNA

HURRENGO PUNTADAK EMATEKO GOGOTSU

Txikitik eragiten jarraitzeko pilak kargatuta itzuli da lantaldea erredakziora larunbatean Ondarroan ospatutako ARGIA Egunetik. Makrojaialdien eredutik urrun, gertutasunean oinarritutako festaz gozatzeko aukera izan dugu beste urte batez ere, aurtien Lea-Artibaiko eragileen laguntzari esker.



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Goizeko 09:45ak izango dira eta oroimenaren txangoa 10:00etan hastekoa da. Zer egingo dugu, pixkanaka gerturatu ala aurretik espabilatzeko kafe bat hartu? Lehen zita hori luze joan daiteke... Hori izan da Ondarroara iritsi eta lagunaren eta bion lehen galdera. Kafea hartzea erabaki dugu badaezpada. Oker genbiltzan, ordea, txangoa luze joango zenaren zalantzarekin. Ordubetez 36ko Gerrara eta ondorengo urte zailetara eraman gintuzten Patxiren, Doitaren eta Inmaren historiak aditzen gustura jarraituko genuen beste hainbeste denboran. Hunkitu

gintuzten Ondarroako portuan edo Saturrango kartzela izan zen lekuan emandako azalpenekin eta erakutsi zizkiguten garai hartako argazkiekin.

Eta iragana ahanzturan erori ez dadin gogora ekarri ondoren, orainaldira saltoa. Irekiera ekitaldi txiki batekin jarri ziren martxan egun osoan zehar ikusgai egon zen *Trantsizioak* erakusketa eta hainbat herri eragile bildu zituen azoka, eta haurrek hartu zuten protagonismoa jolas hezitzaileekin. Batzuek lehen erosketak egiten hasiak ziren ongietorri ekitaldia bukatzerako, txikienak gustu-



ra zebiltzan eskuak buztinetan sartuta Nendo Dango tailerrean, eta ez ziren falta txosna ireki orduko txakolinari lehen kolpea eginez pintxoari heldu ziotenak.

Argiazaleon Topaketan proposamena

Horiek izango ziren Argiazaleon Topaketan esertzen azkenak, baina urteroko zita honek ere itxura polita hartu zuen familia txikia osatzen joan ahala. Helburu nagusia garbia da: komunitatea elkartzea eta proiektuaz hitz egitea. Baina zita bakoitzak du bere berezitasuna. Usurbilen aldizkariaren eta proiektu-



tuaren formatuan jarri zen fokua, han jasotako iritzien laguntzarekin Oñatin eraberritutako 0. alea aurkeztu ahal izan zen... eta aurrean zer? Lagun taldea borobilean bilduta, ARGIAko kideek buruan darabilten harpidetza edo laguntza eredu berria proposatu zuten.

Urte luzetan egon da harpidedunarentzat tarifa bat finkatuta eta horri lotuta truke jakin bat. Galdera aldatu nahi da, ordea: zer eman nahi edo ahal duzu proiektua babesteko? Eta galdera horren ondoren dator horren truke zer jaso nahi duzun. Jende guztiari eman

nahi zaio aukera bere modura ARGIA lagundu eta irakurtzeko, eta bere esku utzi nahi da zenbatekoaren erabakia. Ondarroan bildu zen komunitateak arretaz entzun zuen proposamena, eta haren gainean hausnarketa egiteko baliatu zuen tartea; beren zalantzak bota eta ekarpenak egiteko.

Aurretik, baina, topaketak girotzeko-edo, ARGIArekin genuen lotura azaltzeko errondaxo azkarra egin genuen; eta aditu nituen tartean Lea Artibaiko hiru emakume harpidedun. Bazkal aurretik beraiekin hitz egiteko tartea hartu nuen.

“Niretzat ARGIA aldizkari bat baino gehiago da –esan zidan harpidedun ondarror batek–, herrigintzako proiektu bat da, gizarte informatua izateko beharrezko tresna. Gaurkotasuneko gaiak ikuspegi kritiko batetik lantzen ditu eta konfiantza ematen dit. Euskal Herriarentzat eta euskaldunontzat garrantzitsua den proiektua dela iruditzen zait eta aurrera jarraitzea gustatuko litzaidake, gaur egun informazio kritiko eta zabal hori euskaraz ematen duen bakarra delako”.

Argia Egunaz eta komunitateaz ere baikor hitz egin zidan: “Gustura jaso



ARROZTEGIA
ADAKAIIZ

ateak,
tarimak,
leihoak,
zokaloak,
persianak,
sukalde
eta altzari
montaiak

94 683 21 68
605 715 404
657 799 809

era guztietako egur lanak
Egidazu kaia, 7 • ONDARROA



1936ko Gerrako oroimen eta testigantzek jendea hunkitu zuten Saturrarango joan-etorrian.

GOIZMEK, S.L.
MEKANIZATUAK

☎ 946 841 413 / 680 601 415
Okamikako Industrialdea, 3A
48289 Gizaburuaga
BIZKAIA
goizmek@goizmek.com

nuen orain bi urte ARGIAk Usurbilen kalera ateratzeko hartu zuen erabakia. Hor ikusten da proiektu honen eta harpidedunen artean zein lotura dagoen eta ederra da harpidedun edo irakur-

leok sentitzea benetan gurekin kontatzen dela”.

Beste harpidedun batek belaualdi arteko katea nola mantendu den azaldu zigun: “Urte asko dira etxean har-



ZIORTZA-BOLIBARKO UDALA

Domingo Ugartetxea, 3
48278 (Ziortza-Bolibar)
☎ 946 165 727 · Faxe: 946 164 016
udala@ziortza-bolibar.com
www.ziortza-bolibar.com



Garbi jokatu hondakinekin

LEA-ARTIBAI
AMANKOMUNAZGOA

www.lea-artibai.org

- ▶ BERRIATUA
- ▶ ETXEBARRIA
- ▶ GIZABURUAGA
- ▶ ISPASTER
- ▶ LEKEITIO
- ▶ MARKINA-XEMEIN
- ▶ MENDEXA
- ▶ ONDARROA
- ▶ ZIORTZA-BOLIBAR



Musika, jolasak, batukada eta giro ona nagusitu ziren Ondarroako Itsasurre plazan.

pidedun garela, eta astero ARGIA noiz ailegatuko zain egoten gara. Ondo landutako artikulua izaten dira, sakontasunez. Eta Elorri bizi arren Argia Eguna Ondarroan izanda gustura etorri

naiz. Orain alaba ere harpidedun egin da gainera, eta nik uste guk baino gusturago irakurtzen duela oraindik”.

ARGIArekin lehenengo harremana nola egin zuen kontatu zigunik ere

SALMENTA eta KONPONKETA
MULTIMARKA

**KG ONDARROA
MOTORRAK**

656 78 94 68
94 683 23 93

kgmotorrak@gmail.com

Antiguako Ama 11, behea
48700 ONDARROA
(Bizkaia)

AXA Lea-Artibaiko
AXA agentziak

Ondarroa ☎ 946 036 484
Lekeitio ☎ 946 243 396
Markina ☎ 946 168 912

asegurua / berrasmatzen

 **cikautxo**

CIKAUTXO AUTOMOCION
MAGDALENA AUZOA 2- B
48710 Berriatua
946133000
cikautxo@cikautxo.com

www.cikautxo.com



izan zen: “Ikasle sasotik ezagutzen dut ARGIA. Alfabetatze ikastaroak egiten genituen, eta orduan euskaraz egiten zirenak ziren *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia*. Niretzat aurkikuntza bat izan ziren, ikustea bazegoela euskaraz zer irakurri... Eta lanean hasi bezain laster egin nintzen bien harpidedun. Gerora *Anaitasuna* bukatu zen, eta ARGIAN jarraitu dut”.

Etxebarriako harpidedunak garden hitz egiten du urte guztiotako ibilbidea aipatzerakoan: “Orain zortzi-hamar bat urte zalantza batzuk izan nituen harpidetzarekin jarraitzeko, ez ninduen guztiz betetzen, baina pixka bat itxarotea erabaki nuen. Eta orain ez daukat zalantzarik. Gustura nago ARGIAN egiten den lanarekin, eta beste inon lortu ezin dudana informazioa eskaintzen dit”.



Argiazaleon Topaketa gure proiektu komunikatiboa partekatzeko espazio garrantzitsu bihurtu da.

Elikadura burujabetza, NAN arrotzen jaurtiketa...

Horrelakoak aditu ondoren bazkaltzera joan daiteke! pentsatu nuen. Eta hor hurrengo detailea, eta ez makala. Mahaien parean pankartan Euskal Herriaren zazpi lurraldeak irudikatuta eta barruan zenbait herri eta produktu, otorduan

jango genituen elikagaien jatorriaren adierazle. Eta guztia *chapeau*, noski.

Bertsolariek, antzerkiak eta dantza tailerrak bete zuten bazkal ondoreneko giroa, eta lasai-lasai kafea hartzen ari nintzela han non ikusten dudana bera;

NAN arrotzen jaurtiketako txapeldun handia, irribarre txikia ahoan, “bai, ni naiz eta nire lidergoa mantentzera nator” esanez bezala. Marka: 29,2 metro. Nire belarri ondotik ziztu bizian pasaz txartela sumatu nuenean ohartu



Eika Koop. E.

Urresolo, 47
48277 Etxebarria (Bizkaia) Spain
T: 946167732
F: 946167746
www.eika.com.es

GIZABURUAGAN EUSKARAZ BIZI GARA

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
Tel./Faxa: 946 842 586
idezkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org
www.gizaburuaga.eu



Markina-Xemeinen euskaraz bizi gara! Heldu euskarari

Diru-laguntzak euskara ikasleentzat:

Euskalduntze oinarrizko maila doan, herriko euskaltegian bada.

Etorkinentzako ikastaro bereziak.

Gainerako mailetan %80ko diru-laguntzak.

Aurtengo nobedadea:

Monitoretza ikastaroa euskaraz eta herrian (diruz lagunduko da).

Markina-Xemeingo Udala

Goiko Portala 3

48270 Markina-Xemein (Bizkaia)

Tel: 946 169 193

elena@markina-xemein.eus

markina-xemein
udala



nintzen lehiaketa hastear zela, Euskal Herriko hirugarrena. Jendea entrenatzen serio-serio ondokoari teknika lapurtzeko irrikan, beste batzuk lasai antzera etxeko-lanak ondo eginda eraman balituzte bezala.

Total, hasi da txapelketa eta han gabil-tza gizajo guztiak, 5 metroren bueltan, elkarri barre eginez, eta han dator liderra, bere teknika bereziarekin... isilunea, eta txalo zaparrada. Ez du marka gaintitu baina hor inguruan ibili da oraingoan ere. Oier iritsi den arte. Lekeitiarra. Txoro plantak egin ondoren bota ez zuen ba 40 metrotik aurrera? Marka berria ezarrita joan zen etxera sari eta guzti, harro esanez "Ondarroan ez dago hau gaintituko duenik. Eskerrik asko Ondarroa!".

Occhi di Farfalla taldearen eta Jon Basaguren bakarlariaren kontzertuekin eman zitzaion bukaera txikitik, elkarlanean, komunitatearekin egindako egunari. Egun osoaren errepassoa egin ondoren ez dut ahaztu nahi aurretik eta bertan lanean ibili zareten eragile eta norbanako guztiarekin, eta baita bertaratu zinetenekin ere. Erronka be-



NAN arrotzen jaurtiketaren errekorra ondu zuen Oier lekeitiarrak.

rriak daude aurretik, eta pauso berriak emateko gogotsu ikusi dut Ondarroan ARGIAren komunitatea; eta lehen kontzentzitura bageunden esaldi honekin,

larunbatekoarekin oraindik eta gehiago: jende txiki askok, leku txiki askotan, gauza txikiak eginez... mundua alda dezake. ■



*Enpresa eta
autonomoentzako
aholkularitza*

Iparragirre kalea 9 baxua ONDARROA • ☎ 946 833 208
Tolosa Etorbidea 5, 4 Solairua 2. Bulegoa 20.018 Donostia • ☎ 943 429 609
fideslan@fideslan.com • www.fideslan.com



**Berriatua
Elizateko
Udala**



T. 946 137 030
F. 946137027

Herriko Plaza, 1
48710 Berriatua-Bizkaia

www.berriatua.org



PUNTADAZ PUNTADA TXIKITIK ERAGITEN ARGIA EGUNA 2016

Esker mila festa hau egiten lagundu diguzuelako

BABESLEA



LAGUNTZAILEAK



Ondarroako
Udala

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ETX Kultur elkarte



CándidoBesa
STRATEGIA



OPIL OKINDEGIA
GOZOTEGIA



U H I N A
SONORIZAZIO ETA AROZTAPEN PROFESIONALA



Txirimorraski
taldea

Lea-Artibaiko
bertso eskolak

Abarka Taldea

Ondarroako
Historia
Zaleak taldea

Kresala Kultur
Elkartea

Festari zabalkundea eman diozutenoi eta gainerako parte hartzaile guztioi ere, eskerrik asko!

Erentzun Ikastola

PRAKTIKAREN BIDEK, GAITASUNAK BARNERATZEN

Bizitzarako oinarriko konpetentziak jorratzea helburu duen Longar proiektua garatu dute Vianako Erentzun ikastolan. Lodosako Ibaialderekin batera aurtengo Nafarroa Oinez festa atontzeaz arduratu den Erentzunera gerturatu gara, ikastolako zuzendari Maite Oterorekin egitasmoaren izaeraz, xedeez eta emaitzez solastatzera.



Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

@eagirrebeng

ARGAZKIAK: ERENTZUN IKASTOLA

2008-2009 ikasturtean hasi ziren Vianako ikastolan oinarriko konpetentziak lantzeko proiektua hezurmamitzen. Eki-menari herriko gain altuenaren izena jarri zioten: Longar. Ikasgelan gaitasunak jorratzeko, teoriari beharrez praktikari eman nahi zioten lehentasuna, klasean lorturiko ezagutzak praktikan jarri eta ikasleen ekimena sustatuz.

Lehenengo, EHuko irakasle eta Didaktikan doktore Jesus Mari Goñiren aholkularitza jaso zuten irakasleek. Maila bakoitzean landu beharreko proiektu edo bateratze-lanak diseinatu zituzten,

eta behin aplikatuta, hobekuntzak txertatzen joan ziren. Hala, 2014an Longar osorik garatzea lortu zuten, berau osatzen duten bateratze-lan edo proiektu guztiak burututa. Ikasleek oinarriko konpetentziak barneratzeko lan praktikakoak dira bateratze-lanak, eta uneon 18 barnebiltzen ditu Longarrek; hots, maila bakoitzeko bi, 3 urtetik 12 urte bitarte -Erentzunek ez du DBHrik-.

Maite Otero zuzendariaren hitzetan, Longar sortu eta garatzea ez da erraza izan, "ikastola batean duzun ohiko lanari lan gehiago gehitzea izan baita. Curri-

culuma eta jarduerak sortu eta moldatu behar izan ditugu, ahalegin handia eskatu digu". Haatik, garbi dauka ahaleginak merezi izan duela. Bateratze-lan guztiak ekoizpen propiokoak direnez, egitasmoa hagitz berezia dela dio: "Erentzungo irakasleek sortutako jarduera eta proiektuetan oinarritzen da Longar, ez ditugu argialetxe batetik hartu. Gure beharrei begira sortu eta egokitutakoak dira. Horrek egitasmoa berezi egiten du. Gainera, ez dute soilik ikasturte jakin batean ikasitakoa aplikatzen, jaio zirenetik barneratutakoa baizik".

» **MAITE OTERO, ZUZENDARIA:** "Erentzungo irakasleek sortutako jarduera eta proiektuetan oinarritzen da Longar, ez ditugu argialetxe batetik hartu. Gure beharrei begira sortu eta egokitutakoak dira"

» Lan autonomoari esker konpetentziak garatzen eta jarrera jakin batzuk bere egiten joaten dira. Jarrera horien artean leudeke, besteak beste, autonomia bera, arduraren eraginkortasuna, iniziatiba edota sormena

» Hezkuntza Departamentuak bi bateratze-lan saritu dizkiete: "1. adinetik 3.era", zahar etxerako prestatutako ikuskizuna oinarri, eta "Saski bete barazki", baratze bat planifikatzea helburu



Ikasleek oinarrizko konpetentziak barneratzeko lan praktikokoak dira bateratze-lanak, eta uneon 18 barnebiltzen ditu Longarrek, tartean zahar etxe batean aurkezteko ikuskizuna prestatzea (goiko argazkian), erabiltzen ez dituzten jostailuak Caritas elkarteari emateko proiektua (eskuinean) eta baratze bat planifikatzea (behean).

Lan autonomia giltzarri

Bateratze-lanetan teoria alboratu eta praktika dago erdigunean: unitate didaktikoetan jasotako eduki eta ezagutzak proiektu errealekara bideratzea da xedea. “Uste dugu edukiak emateak ez duela ezertarako balio, ondoren ez bada praktikan jartzen. Ikasgelan gauza pila bat ikasten dute haur eta gazteek, baina erabili ezean eduki horiek ez dira baliagarriak. Proiektu praktikoekin egoera hori aldatzen saiatzen gara”, azaldu du Oterok. Bateratze-lanak jorratzeko –bi, ikasturte bakoitzean– astebete bana hartu ohi dute, proiektuaren lanketan buru-belarri murgiltzeko. Proiektu horiek garatzerakoan, ikasgaiak, banaka beharrean, metatuta lantzen dira. “Proiektuek hainbat konpetentzia garatzea dute helburu, beraz, ikasgaiak metatu eta hauen arteko mugak lausotu egiten dira. Funtsezkoa da lana diziplinartekoa izatea”.

Proiektuetan arazo eta eginbeharrak testuinguru errealetan planteatzen

zaizkie ikasleei, hauek hainbat esparrutako gaitasunak landu ditzaten, eta azken helburua soziala izan ohi da. Haur Hezkuntzako Lehen Mailan, esaterako, erabiltzen ez dituzten jostailuak Caritas elkarteari ematen dizkiote proiektuetako baten amaieran. “Umeak urratsak ematen joaten dira, helburua bete arte. Ikasleentzat metodologia oso motibagarria da. Zerbait zerbaitetarako egiten dute. Ez karpetan gordetzeko, baizik eta zerbait baliagarria egiteko”.

Proiektuak talde-lanean gauzatzen dira, baina aldi berean lan autonomia eskatzen dute. Taldearen barruan kide bakoitzak bere zeregina dauka, modu autonomoan burutuko duena. Ikasleek beren lana portfolio edo karpeta batean gordetzen dute, eta hori da geroa ebaluatuko dena. Oteroren aburuz, lan autonomoari esker konpetentziak garatzen eta jarrera jakin batzuk bere egiten joaten dira. Jarrera horien artean leudeke, besteak beste, autonomia bera, ardura, eraginkortasuna, inizatiba edo-



ta sormena. “Haur Hezkuntzan hasten gara Longar aplikatzen, ondoren ikasleak jarrerak garatuz joan daitezten. Egitasmo honi esker, agerikoa da ematen den garapena. Oso positiboa da, jarrera horiek ikastetxetik kanpoko bizitzarako ere balio dutelako”.

Hiru fase

Bateratze-lanak hiru fase ditu: hasiera, garapena eta bukaera. Hasierakoan jarduerak azaldu eta testuinguruan kokatzen dira, landu nahi diren konpetentziak aurkeztearekin batera. Ondoren gaiaren edo egoeraren garapena dator: eman beharreko urratsak eta erabili beharreko baliabideak <http://longar.nieikastolak.com> web orrian dituzte ikasleek. Azkenik, amaierako jarduerak egiten dituzte, lana baloratu eta portfolioa osatzeko. Karpeta horretan konpetentzien ebidentziak bilduko dituzte ikasleek, kasuan kasuko proiektuak eskatzen dituen gaitasunak zein neurritan berenganatu dituzten erakusteko.

Erabiltzen ez diren jostailuei buruzko proiektua hartuko dugu berriz ere adibide: lehenik gaiaren aurkezpena eta aurre-egagutzen erreposoa egin da; ondoren ikasleek gutun bat –denen artean adostutakoa– bidali diete senideei, jostailu eske; behin jostailuak jasota, gaika sailkatu dituzte; horren ostean Caritasekin harremanetan jarri dira, jostailuak eman behar dizkietela jakinarazteko; eta amaitzeko, jostailuak eraman, egindako lana aurkeztu eta egindako ariketekin portfolioa osatu dute.

Bide horretan guztian, zer funtzio dute irakasleek? Bada, Erentzungo zuzendariaren esanetan, irakasleek batik batik gidari lana egiten dute. Dena den, “ikasleen adinaren arabera irakasleen rola ezberdina izan ohi da. Oraindik irakurketa menperatzen ez dutenean, irakasleak laguntza eskaini behar die, baina adinean gora egin ahala, lana gero eta autonomoagoa da. Zer egin behar duten azaltzen zaie ikasleei, eta ondoren proiektuak euren kasa gara-

ZORTZI OINARRIZKO KONPETENTZIA ETA BOST OROKOR

Hauexek dira Longarrek jorratzen dituen oinarrizko konpetentziak:

1. Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
2. Matematikarako gaitasuna.
3. Zientzia, teknologia eta ingurumenaren zaintzarako gaitasuna.
4. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala.
5. Gaitasun soziala, eta aisialdirako, kontsumo arduratsurako eta osasunaren zaintzarako gaitasuna.
6. Gaitasun kultural eta artistikoa.
7. Ikasten ikasteko gaitasuna.
8. Autonomia, ekimen pertsonala eta garapen emozionala.

Euskal curriculumean zehazten diren gaitasun orokorrak ere kontuan hartzen ditu proiektuak: ikasten eta pentsatzen ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera ikasten ikasi, eta egiten eta ekiten ikasi.

tzen dituzte”. Horrez gain, behatzaile ere badira irakasleak, ebaluazioaren zati bat eurei dagokielako. Beste zatia, ikasleek euren buruaz egindako autoebaluazioa da.

Lan onari aitortza

Maite Oterok dioenez, “proiektuak ohiko klaseak baino dibertigarriagoak dira ikasleentzat. Metodologia oso dinamikoa da, eta hori asko gustatzen

zaie. Gogotsu aritzen dira. Gainera, konturatu ere egin gabe gauzak ikasten dituzte”. Longarren emaitza onak ikusirik, Hezkuntza Departamentuak bi bateratze-lan saritu dizkie, “1. adinetik 3.era” eta “Saski bete barazki”. Lehenengoan, 11-12 urteko ikasleek ikuskizuna prestatu dute zahar etxe batean. Bigarrenaren kasuan, 8-9 urteko ikasleek baratze bat aurrera eramateko beharrezko planifikazioa egin dute. “Ekimen hauek arrakasta handia izan dute eta sariak eragindako lan guztiaren aitortza dira. Norabide onean goazela erakusten dute”.

Lizarrako Ikastolan ere badute oinarrizko konpetentziak garatzeko proiektua, Ubagua, eta bi ikastetxeek harremana mantentzen dute, esperientziak trukatzeko. “Bi zentroetan ikusi dugu metodologia honekin ikasleek eta irakasleek gozatu egiten dutela. Haiek 12 urtera arte garatu dute proiektua, DBH ere eskaintzen baitute, eta emaitza oso positiboak eskuratu dituzte”.

Longarri esker ohiko klaseak lantzeko ikuspegi berria dutela nabarmendu du zuzendariak, askoz ere praktikoa: “Konpetentziak lantzerako orduan eraginkorrak izateko, unitate didaktikoak ere ikuspegi praktikotik lantzen saiatzen gara. Herriarekin edo inguruko gauzeekin loturiko gaiak jorratzen ditugu, azalpenak horren trinkoak izan ez daitezten”. Bere ustez, hezkuntza ulertzeko modu hori apurka errotzen joan beharko litzateke: “Gu ez ginen kapritxo batengatik hasi. Ikerketak argi mintzo dira, eskola uztearen portzentajeak oso dira altuak, ikaskuntza birpentsatu behar da. Eta Longar bezalako ekimenek aldaketari atea zabaltzen diote”. ■

**Kalitatea da
gure produktuen
ezaugarri nagusia!**



**BISITA EZAZU
GURE DENDA**

Industrialdea B 7-8 partzela

**ABLITAS · Nafarroa
KOSTAPREZIOAN**



conservas artesanas
maría Jesús



www.conservasartesanas.com

Euskara gure mintzoa baino are gehiago da,
hainbatek egindako ibilbide luzea da.
Bideari jarrai diezaiozun.

...

EUSKARAZ

BIDEA EGINEZ



Barnetegi ibiltaria

EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU



AEK-k antolatutako barnetegi ibiltarian 36 lagun bildu ziren uztailean. 15 egun, 350 kilometro, Muskizetik Ezpeletara. Euskara maila politekoak denak, etengabe euskaraz aritzeko irrikaz. Kide horietako bat izan zen ARGIAko Dani Blanco argazkilaria. Argazkiak egin zituen, nola ez, eta bere gogoetak ere ekarri ditu hona.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Dani Blanco





Egunero mendian ibili garenez, naturari lotutako terminologia ikasteko aukera polita izan dugu. "Zenbat sasi eta iratzel!", "Nik ez dut horrela esaten", "Eta nola esaten duzu ba?". Euskal Herri osoko ikasleak izanda, sinonimoak ikasten fin ibili gara. Irakasleek gure artean hitz egitea bultzatzen zuten. Batzuetan jolasak egiten genituen, goiko argazkian ikusten den moduan, mihia astintzeko. Gutako askok ez dugu etxean euskaraz egiten, batzuek lantokian baino ez, beste batzuentzat euskaltegia da euskaraz egiteko aukera bakarrenetakoa. Horregatik joan gara barnetegira, etenik gabe euskaraz egiteko. Hitzek bat ateratzen ez bazitzaigun, erdarazkoa 'euskerizatu' eta aurrera!





Kiroldegietan, frontoietan, AEK-ko geletan egin dugu lo. Abeslarienak ordea, ez ziren oheratzen kantaldia egin gabe. Lagun batek esan dit beheko argazkia ikusita antzematen dela bukaerarako gure artean konfiantza giroa indartu zela. Harreman estuak egin genituen, eta horrekin batera, Ezpeletara, helmugara, iritsi ginelako poz-pozik geunden. A, hauxe den-denok ikasi genuen esaera barnetegi ibiltarian: 'Baba atera zait oinean'.



Marwan Abdulal, PAHFeko idazkari nagusia Libanon

“ISRAEL DA AL QAEDA ETA ESTATU ISLAMIARRAREN AITA EKIALDE HURBILEAN”

Palestina ez da soilik Gaza eta Zisjordania, errefuxiatuak ere badira Palestinaren parte. Ohiko esatera da hori lurralde okupatuetatik ihes egin behar izan duten milioika palestinarren artean, lau miloi baino gehiago. Beste herrialde batzuetan bizi diren palestinarrek erresistentziaren parte aktibo dira eta noski, lurraldearen etorkizuna beren eskuetan dagoela uste dute. Marwan Abdulal Palestinako Askapenerako Herri Fronteko (PAHF, ingelesez PFLP) idazkari nagusia da Libanon eta erakundearen *bureau* politikoko kidea. Erakunde marxistak Beiruten duen bulegoan hartu gaitu Siriako gerraz, Ekialde Hurbilaren egoeraz eta Palestinaz solasteko.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Ibai Trebiño

Libanotik gertu dago Siria eta han PAHF borrokan ari da. Zein da zuen papera?

Palestinarrak defendatzen ditugu, auto-defentsa gisa. Hori baino ez; ez gara ez alde baten ezta bestearen alde borrokatzen. PAHFen jarrera Siriako barne aferetan ez sartzea da. Siriako talde palestinar armatuei zabaldu behar zaien mezua argia da: Siriako gerran sartzen bazarete, kanpalekuan bizi diren palestinarrek ordainduko dituzte zuen ekintzen eta arduragabekeriaren ondorio latzak. Sirian, Iraken edo Libanon bizi garen palestinarren borroka gure gizartea eta gure burua defendatzera mugatu behar da.

Zein da Siriako palestinarren egoera?

Sirian bizi diren errefuxiatu palestinarren egoera bikainean bizi izan dira, Li-

banoko palestinarrek baino askoz hobeto, adibidez. Siriako palestinarrek beren eskubide guztien jabe dira eta siriarren eskubide berberak dituzte. Libanon, ordea, ez dugu inolako eskubide zibil eta politikorik.

Zein da zure iritzia Baxar Al Assaden inguruan?

Palestinarrak batzuek asko maite dute Al Assad eta Siriako erregimena, gauza asko eman dizkigulako. Halere, Palestinako Aginteak ez du harremanik Siriako erregimenarekin; Yasher Arafatek arazo asko izan zituen Baas alderdiarekin eta bere gobernuarekin. Siriako tropak Libanoko gerra zibilean izan zirenean palestinarren errefuxiatu eremuak inguratu zituzten eta maiz arazoak izan ziren bien artean. Herrien arteko harremana ordea, bikaina izan da beti, elkartasun handia izan dugu eta bidelagun ditugu anai-arreba siriarrak.



Siriako gobernuaren aurka borrokan ari diren fakzio palestinarrek ere badira. Palestinarren arteko gerra zibil bat sustatzen ari dira?

Palestinarren zati txiki bat da Siriako gobernuarekin arazoak dituen. Adibidez, Hamas. Anaia Musulmanen mugimenduaren parte da eta Anaia Musulmanek Siriako Gobernua aldatu nahi dute.

Nolokoa da Israelen esku hartzea Sirian?

Amerikarrek arabiar munduko hainbat erregimen suntsitu nahi dute eta horri erantzuten dio Siriako gerrak. Israel eta amerikarrek babesten dituzten erregimen kriminalen aurkako matxinadarik egon ez izana ez da kasualitatea, Saudi Arabia kasu. Orain Yemen bonbardatzen ari da Saudi Arabia, hango arabiarrek sarraskitzen ari dira.

Israel ez da soilik palestinarren etsaia, arabiar komunitatearen etsaia ere bada, sionistak Apartheid politikaren susta-



PAHFeko kide armatuak
Tripoliko (Libano) Badawi
errefuxiatu eremuan

tzaileak dira. Orain Irango Errepublika Islamiarra ere suntsitu nahi dute. Israel-ek Ekialde Hurbila kontrolatu nahi du eta horretarako Turkia eta Anaia Musulmanen laguntza behar du.

Mapa geopolitiko konplexu honetan, zein da zure alderdiaren posizioa?

Inperialismoaren eta kapitalismoaren aurka borrokan ari diren mugimenduak dira gure lagunak, Latinoamerikan, Europan edo Afrikan. Iraultzaren eta komunismoaren alde borrokan ari direnak beti izango ditugu bidelagun.

Sirian gertatzen ari denak eragina izan lezake Palestinaren etorkizunean?

Bai, noski. Israel-ek dio "bere burua babesteko" egiten duela gerra. Hezbolaren edo Palestinako erresistentzia estrategiek ideia hori guztiz desmuntatu dute. Israel-en benetako asmoa da Iraketik Egiptoraino doan eremua suntsitu eta

bere interesen aldeko gobernuak ezartzzea. Eskala handiko gerra zabaldu nahi du Israel-ek. Sirian erregimenaren aldekoen eta kontrakoen eta erlijioen arteko zatiketa geografikoa sustatu nahi dute. Irakekin egin zutena egun Sirian gertatzen ari da. Haienezat Siria da eskualdeko etsaierik inportanteena eta gainera, harreman bikainak mantentzen ditu Iranekin edo Errusiarekin.

Palestinari dagokionez, Siriako Gobernuak erresistentzia palestinarra babestu eta sostengatu izan du historian. Hezbolak Israel garaitu zuen Siriaren laguntzari esker. Hori da hain zuzen, guk behar duguna. Irak suntsituta, orain Iranen babesaren esperantza dugu, laguntza behar dugulako.

Zein da Siriako eta Ekialde Hurbileko gatazken konponbidea?

Siriak irtenbide politikoa behar du, gatazkari konponbide militar bat ematea

ezinezkoa baita. Estatu Islamiarra eta mundu osoko mertzenarioak ari dira Sirian borrokan. Tunisian eta Egipton gertatutakoak antzeko bidetik doaz. Amerikarrek sustaturiko "iraultzek" gerra ekarri dute arabiar mundura.

Daesh (Estatu Islamikoa) aipatu duzu. Zer harreman dago Mendebaldeko indarren eta Sirian borrokan diren hainbat talde islamiarren artean?

Sukalde-lana batera egiten dute talde islamiar erradikalek eta Israel-ek, adibidez. Israelgo ospitale-tan Al Nusra Fronteko (Al Qaeda) milizianoak artatzen dituzte. Estatu sionistak egin eta emandako armak erabiltzen ditu Estatu Islamiarrak eta Israelgo hainbat militarren aholkularitza izan dute. Israel da Al Qaeda eta Estatu Islamiarraren aita ekialde hurbilean.

Israel-en aurkakoa da behar dugun udaberri arabiar bakarra. Estatu sionista suntsitu behar da eta hori izan behar du arabiar guztien helburua.

Israel-ekin konponbide posiblerik ikusten al duzu?

20 urtez konponbidea bilatzen saiatu garen arren, Israel-ek bere konponbidea baino ez du nahi, bere mesedetan dagoena. AEB dute bidelagun eta babesle. Israel-en konponbideak palestinarren zatiketa du ardatz. Konponbiderik gabeko prozesua iruditzen zaigu nazioarteko komunitatearen proposamena.

Orain 'bi estatuen' konponbidea proposatzen digute: "Bi estatu, bi herri". Gure ustez, aldiz, bi konponbide baino ez daude: Israel desagerraraztea edo Israel-en konponbidea ontzat ematea. Bien bitartean, gure aukera bakarra erresistentzia da, erresistentzia osoa. Estatu batek inbaditu gaitu eta erresistentziaren hautua egin dugu prozesu iraultzaile baten alde mundu arabiarrean.

Palestinaz ari garenean, ez gara Zis-jordaniaz edo Gazaz bakarrik ari, baita mundu osoan barreiatuta dauden errefuxiatu palestinarrak guztiek ere. Guztion proiektua da Palestina. Palestinarrak guztion proiektu nazional gisa ulertzen dugu erresistentzia. ■

Haginaga baten peskizan



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratztea.eus

Haginetik haginaga. Hagina, *Taxus baccata*, haziak erabili beharrik gabe ugaltzeko. Adar muturretako kimuak, aldaxka gisa, aldatu eta landare berriak sortzeko gai dira. Aldaxka landare “amaren” puska bat besterik ez denez, bertatik sortuko den landare berria haren berdina izango da: hostajearen kolorea, adarrak emateko joera, tamaina, kemena... Klona bat izango da. Klona, aurrekoaren berdina, ezaugarri berberak dituena besterik ez da. Horrek abantailak ditu, eta horiek gure alde erabiltzen azkarrak izan behar dugu. Bertako haginaren aldaxkak erabiltzea da kakoa. Kanpotik ekartzen ditugun haginak ez dakigu nondik sortuak diren, zein tokitako klimara eta lurrrera egokitutakoak diren. Hemengo mendietan berez sortutako hagin zaharrak, ordea, bertan milaka urtean osatutako amona-ama-alaba kate baten katebegi dira, milaka urtean bertara egokituz eta aurrinduz egundaino iritsitakoak dira. Horiexen klonak izango dira gero ere hemen, zeu-



Hagina (*Taxus baccata*).

re lurrean, ondoen bizi eta iraungo dutenak; edozein direla ere, etorkizunean sor daitezkeen baldintza berrietara bizitza moldatu eta espeziearen iraupena lotuko dutenak.

Eta nola sortu zuhaitza adar muturretatik? Landare “ama” aukeratu, arra edo emea. Izerdia ondoso darabilen edozein urte sasoi ona da, martxotik abendura. Nire ustez, udazkeneko sasoi hau da, hala ere, onena. Adar sano eta indarrean daudenak aukeratu. Arrabete inguruko muturrak moztu, ebaki garbia eginez. Adar puskek erdi biguna eta erdi gogorra izan behar du, ebakitako tokian egurra egiten hasia dena. Alboetan adartxoak baditu moztu eta kendu, baita lurpean sartu beharko dugun beheko aldeko hirutik bitako hosto guztiak ere.

Sustraiak bizkorrago emateko, batetik soildu dugun aieka horretako azalean axaleko zauritxoak egin, labanarekin kariskan, adibidez, eta bestetik aldaxkaren oineko ebakia zanpatu zauria itsustuz. Lur beltza eta hondarra erdibana nahasi, eta, esan bezala, hirutik bi lurpean sartu. Lurperatuko dugun zati hori aurretik hormonatan blaitu. Itzalzalea da hagina; neguan izotzak harrapatuko ez duen toki freskoan jarri. Lurra lehortzen ez utzi, baina ito gabe ureztatu. Egoiena hormonak dituen ura da, haziak (dilista, *Lens culinaris*; txitxirio, *Cicer arietinum*; babarrun, *Phaseolus vulgaris*; arto, *Zea mays*; gari, *Triticum spp*; olo, *Avena sativa*; hirusa, *Trifolium spp...*) edo zume adarrekin (*Salix spp*) egina. Hagin batetik haginaga. ■



CándidoBesa
U P A T E G I A

Eskuernaga (Arabar Errioxa)
Tel.: + 34 945 623 355 / 685 738 193
www.candidobesa.com





BASERRIA XXI

BASERRIA XXI

Elkarrekin nekazaritza iraunkorra lantzen eta gizarte arazoei erantzuten



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Azken urteetan sortu den Baserria XXI ekimenak, Gipuzkoan agroekologia oinarri hartuta lanean dabiltzan baserri-tarrak eta lehen sektoreko langileak biltzen ditu. Elkarren arteko harremanak josteko beharra zegoela ikusita, bailaraz bailara lurra lantzen zebilen jendea topatzea eta elkartzea izan zen lehen lana.

Beste ezer baino lehen, elkar ezagutu
Lehen asanbladak elkar ezagutzeko izan ziren, batez ere: nortzuk ziren aurkeztu, zer egiten zuten azaldu... Baserritar askok hartu zuten parte hasierako asanblada horietan.

Elkarte berria sortzeko prozesua dinamizatzeko, Joxemi Zumalabe Fundazioaren laguntza jaso zuten. Antolatutako hainbat saiotan, partekatzen zituzten zailtasunak eta hutsuneak identifikatu zituzten. Bestalde, elkarrearen barruan lantaldeak osatu zituzten: desobediencia, presioa eta okupazioa, formazioa eta sareak jostea eta antolaketa eredu eta merkaturatzea.

“Baserria XXIen funtzionatzeko modua asanblearioa da: lantalde bakoitzak ordezkariak ditu, txandakatu egiten di-

renak, eta hileroko bileran parte hartzen dute ordezkari horiek, kudeaketa lana egiteko”, kontatu du Ane Gorosabel Baserria XXI elkartearen kideak.

Urriaren 1eko hitzordua

Urriaren 1ean Donostian emandako prentsaurrekoa hitzordu garrantzitsua izan da Baserria XXI elkartearentzat, eta orokorrean Gipuzkoako lehen sektorearentzat. Herrialdeko nekazari eta abeltzainak elkartu eta taldearen aurkezpena egitea zuten egun horretako helburu kideek, lehen sektorearen aniztasuna islatuz nolabait. “Azken urteetan lehen sektorean lanean hasi garen gazteak nahiz 40 urte honetan daraman jende helduagoa, guzti horiek batzea da gure nahia”.

Lanean jarraitzeko konpromisoa azaldu zuten taldeko kideek prentsaurrekoan: “Eguneroko jardunean arituko gara, gure lur eta baliabide naturalak nekazaritza eta abeltzaintza iraunkorrerako erabil daitezten, lurrik gabekoek lurra eskura ditzaten, emakume baserriarrei dagokien garrantzia aitortzeki, herritar guztiok, baina batez ere txikienek, kalitatezko elikagaiak jateko eskubidea bermatua izan dezaten”.

Eurek dioten bezala... “Eutsi lurriari!” ■



ALTZA PORRU

Irribarrearen baratzea

Marraskilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,
“mattin” Martiarena, Ainara Azpiazu,
Antton Olariaga, Zaldieroa,
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea
@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Urriak 21: Hondarribia

18:00etan, Endanea Garden Centerren
(Jaizubia auzoa 40).

Urriak 23: Bera

Lurraren Eguna Azokan.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI LAU SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

Konfidantzaren pedagogia liburua

1


Konfiantzaren Pedagogia, begirada pertsonarengan jartzen duen pedagogia

Konfiantzaren Pedagogia: Arizmendi Ikastolaren markoa izeneko liburua argitaratu zuen 2015ean Arizmendi Ikastolak. Hezkuntzan lanean diharduten profesionalak eta gurasoei zuzenduta dago hizkuntza erregistro errazean eta ilustrazio iradokitzaileen laguntzarekin. Irakurketa modu aktiboan egiteko proposamena egiten zaio, gainera, hartzaileri, atal bakoitzaren amaieran nork bere oharrak idazteko espazioa eskaintzen baitu liburuak. Bertan, pedagogia hau praktikara eramateko hiru esku hartze-eremu definitzen dira eta etapa guztietan komunak diren ildo pedagogiko nagusiak deskribatzen dira hamahiru adierazleren bidez eta aipatutako hiru esku hartze-eremuen baitan. Hezkuntza-erakunde baten egon daitezkeen hezkuntza-eragileentzako (profesionalak, gurasoak, ikasleak) eta hezkuntza-etapentzako komuna eta bakarra den marko pedagogikoa definitzeko eta adosteko egin den ahaleginaren emaitza ere bada liburua. Urrian zehar lau ale zozketatuko ditugu.

remu definitzen dira eta etapa guztietan komunak diren ildo pedagogiko nagusiak deskribatzen dira hamahiru adierazleren bidez eta aipatutako hiru esku hartze-eremuen baitan. Hezkuntza-erakunde baten egon daitezkeen hezkuntza-eragileentzako (profesionalak, gurasoak, ikasleak) eta hezkuntza-etapentzako komuna eta bakarra den marko pedagogikoa definitzeko eta adosteko egin den ahaleginaren emaitza ere bada liburua. Urrian zehar lau ale zozketatuko ditugu.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



ARIZMENDI IKASTOLA

943 77 20 25
www.arizmendi.eus

#hezkuntza
#kooperatibismoa
#euskaltzaletasuna

Hilabeteko gainerako sariak

2



Bilgune Feministak argitaratutako **Izena eta izana ezbaian** (4 gida)

3



Ardatza aldizkaria (4 harpidetza)

4



Euskararen kate hautsiak (2 liburu)

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

“Eskerrak lantalde guztiari,
plazer bat delako astero
zuen lanaz gozatzea”

Amaia Agirretxe, ARGIAkoa

Sarean arrantzatua

Xabi Irastorza

@xabirastorza

Aurreko azala bikaina, baina aste honetan @argia-k ez dut uste asmatu duenik. Egonkortasuna da azpimarragarriena?



ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Asteleheneretan, 8:00ean.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Euskalerrria Irratia:**
Asteartetan, 14:15ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiraletan, 10:30ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Asteartetan, 18:00ean.

Iraileko sarituak

- **Ekologistak Martxan liburua eta Dvd-a:** Idoia Azkona (Iruñea), Patxi Xabier Gonzalez (Gasteiz), Unai Bergaretxe (Arrasate), Ixabel Jauregi (Azkoitia).
- **Lanki liburua:** Joxepa Bornaetxea (Donostia), Luis Angel Agirre (Tolosa), Bingen Akarregi (Bilbo), Zesar Armendariz (Noain-Elortzibar).
- **Txatxilipurdiren SUA jokoak:** Xabier Elozegi (Baiona), Jon Mikel Barandiaran (Errenteria), Amaia Isasti (Zarautz), Nekane Ariz (Usurbil).
- **Mugarik Gabe liburuxkak:** Cristina Marcos (Barakaldo), Lune Trecet (Araia)



GURE ESKUBIDEAK, SAIL BERRIA ARGIAN

Badakigu noiz urratzen diren gure eskubideak?



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

Ez al zara sekula egoera baten aurrean zer esan oso ondo jakin gabe geratu, irakurle, zure eskubideak urratzen ari direla jabetu baina askotan ez dugulako jakiten benetan nola erantzun behar-ko gure kasu horretan? Momentu bat eta beste oso desberdin bat etorriko zaigu burura bakoitzari, baina uste dut guztiok identifikatzen dugula bizipen hau. Askotan agian ez gara jabetzen gure eskubideak urratzen ari direnik ere.

“Gure eskubideak” sail berria jarriko dute martxan datorren astean ARGIAN Eider Madina Berasategi iruindarrak eta Eñaut Agirrebengoa Apaolaza altsuarrak. Hilean behingo saila izango da, eta helburu du urratu diren eta tamalez egunero urratzen diren giza eskubideen salaketa egin eta horien aurrean zein irtenbide dauden azaltzea. Orokorrean erortzeko gogo handiegirik gabe, lehen pertsona kontakutako dira bizipen hauek; hau da, bere eskubide urraketa pertsonalaz hitz egingo digun lagun baten kontakizuna ekarriko dute paperera.

Irudi-intimitate eskubidearekin ekingo dio sailari Madinak, eta hone-

la dio lehen esaldiak: “Mari Paz Arrula naiz, tafallarra, eta adin guztietako beste 150 emakume baino gehiago bezala gure herriko taberna bateko komunean grabatua izan nintzen, lokalaren jabeak jarritako kameraren bidez”. Hurrengo hilabeteetan pentsionisten eskubideak, etorkinenak, linguistikoak, kontsumitzaileenak edo indarkeria matxista bezalako gaiak jorratuko dituzte.

Gai potolo bat adar bakoitzaren bizipen txiki bakoitzetik kontatzeko apustua egin dute egileek, eta kontakizun zehatz bakoitzaren atzean dagoen egoera osoa ikustarazteko beste modu bat aukeratu dute. Zifra batzuk emanda baino, askotan gehiago heltzen gara irakurlearengana istorio pertsonaletatik, eta gertuago sentitzen ditugu.

Batzuetan, ordea, istorioa kontakutako duena falta izaten da, eta horretarako deia egiten dute bi gazteek: modu batera edo bestera zure eskubideak urratuak izan badira eta kontaktu nahi baduzu, jarri harremanetan gizartea@argia.eus helbidera idatzita. ■

MARRAZOEN BAZKA SEKRETUA



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**
@irazustabarrena

Filipinetako itsasoa, 1945eko uztailaren 29a. Mochitsura Hashimoto komandan- te zuen I-58 itsaspekoaren tiramenean sartu zen AEBetako armadako Idaho klaseko gurutzaontzi astun bat, *USS Indianapolis*. Gerraontziak ez zeraman eskoltarik eta ez zebilen sigi-saga erasoak saihesteko; jomuga erraza zen.

23:26an, itsaspekoa ontzitik 1.500 metrora besterik ez zegoela, Hashimoto sei torpedo jaurtitzeko agindu eman zuen. Helburua jo zuen eta *Indianapolis* minutu gutxian joan zen hondora. AEBetako armadak ez zuen gurutzaontziaren SOS seinalerik jaso. Handik ordubetera Hashimoto bidalitako mezua, ordea, bidean atzeman zuten: Idaho klaseko ontziari eraso ziola zioen. Seinalea deskodetu eta uztailaren 30ean, 17:00etan iritsi zen estatubatuarren agente-gunera. Baina ez zioten jaramonik egin.

Aste batzuk lehenago ontziak karga sekretua jaso zuen: Hiroshiman jaurtiko zuten bomba atomikoaren uranioa eta beste hainbat osagai. Eta egun batzuk lehenago bomba helburuan utzita, misioa betea zuten. Ontzian gutxi zekiten misioaren berri, ontzitik kanpo are gutxiagok. Japoniarren mezua agente-gu- nera iritsi zenean, txostenak begiratu eta eremu horretan halako ontzirik ez



US NATIONAL ARCHIVES

USS Indianapolis 1939an, japoniar itsaspeko batek hondoratu baino sei urte lehenago.

zegoela ikusi zuten. Japoniarrei atzemandako seinalea hutsegite bat zela ondorioztatu zuten.

Abuztuaren 2an hegazkin batek *Indianapolis*-eko naufragoak ikustatu zituen jitoan. Hala, ontzia hondoratu eta lau egunera, erreskate lanak hasi ziren, mantso, erreskate ontzia ez baitzen gauera arte naufragoengana iritsi. *Indianapolis*-en eskifaia 1.199 pertsonak osatzen zuten: 300 bat ontziarekin batera joan ziren itsas hondora; 316 bizirik irten ziren; gainerako 600ak erreskatearen zain hil ziren, ur gazia edateagatik edo deshidratazioak jota batzuk, eraso-

tan jasandako zaurien eraginez beste batzuk... eta, nagusiki, marrazoek erasota. Misio sekretua sekretuegia zen, ur haietan bizi ziren marrazoen zorionerako. Lau eguneko oturuntza ederra egin zuten AEBetako itsas armadaren kontura.

Estatubatuarren itsas tragedia larriarenarengatik harro ez, eta gertatukoaren berri ez zen askorik zabaldu. Harik eta Steven Spielberg *Jaws* (1975) film arrakastatsuan hizpide izan zuen arte. Robert Shaw aktoreak jokaturako Quint pertsonaiak, lau minutuko bakarriketa gogoangarrian, egun haietan uretan bizitakoa deskribatzen du. ■

SANTABANTA



“Nafarra ez, Iruñekoa”

1974ra arte atzerritarrek ezin zuten jokatu Espainiako futbol ligan. Baina hamarkadaren hasieran jokalaria hegoamerikar andana iritsi zen lehiaketara, espainiar “jatorrikoak” salbuespena baitziren. Eta senide zuzenak ez zituenak, asmatu egiten zituen.

Ramon Alberto Aguirre Suarez argentinarra 1971n hasi zen Granada taldean

jokatzen. Bernardino Perez entrenatzaileak jaso zuen aireportuan eta zera esan zion ostikoak baloiari baino aurrelarietara emateagatik ezaguna zen defentsari: “Esan ezazu aita iruindarra duzula”.

Aurkezpenean kazetari batek galdetu zion: “Beraz, aita nafarra duzu, ezta?” Eta hark erantzun: “Nafarra? Ez, Iruñekoa”. ■

Kau Kori Kura:

“IZPIRITU LIBREKO ARTISTEN ZAIN NAGO”

Jeniala. Tumatxa. Antologikoa. Sareko harrikada handiena. Halakoak irakur daitezke Twitterren Kau Kori Kurari buruz. Hitz surrealista pop melodia jostariekin nahasiz, tartean behin bideo berri bat igotzen du Youtubera Mikel Aizpuruak. Berarekin hitz egin dugu proiektuaz, bere ibilbideaz, erreferentziez, eta bestez.



Kepa Matxain

@kmatxain

ARGAZKIA: BATISTE EZEIZA



“Ze pikuondotatik erori da hau?”, galde-tu zuten dozenaka lagunek aldi berean, iazko ekainaren 25ean, ahots hura entzun zutenean, joaldunen zintzarriek markatutako erritmora, “gaur erronkaeriaz hitz egiten esnatu naiz” kantatuz. Informazio gehiago nahi, baina zaila zegoen datuak topatzea: ama Segurakoa zuela, aita Gaintzakoa. Familian Erronkariko inor ez. Horixe. Gero Twitter kontu bat azaldu zen, logotipoan K handi bat zeukana, eta haren arrastoa segiz hasten zen bat ondorio gehiago ateratzen: Ciclos Iturgaiz bikoteko baten proiektua zela hura, Mikel Aizpuruarena, eta bestea, Ritxar Gomez, literaturgintzara igaro den bitartean –*Goolpe de Vista* eleberria autoeditatu berri du-, garai batean Elurretan taldean jorratutako kantu estilora gerturatu dela Aizpuru, melodia gozoak hitz umoretsu eta surrealistekin nahasiz. *Atez ahate, Patxi Eugi, Erraustegia Txillida-Lekun...*

konturatzerako, 30 pieza osatu ditu, eta ez du ematen gelditzeko asmorik daukanik.

Kau Kori Kuraren kantuak entzun, eta boteprontoan irudikatzen dudana artista horrelako zerbait da: gizona, goierritarra, 40 urteren bueltakoa, pilotazalea, prentsa ilustratua irakurtzen duena, Durangoko Azokako ohiko bisitaria, Euskadi Racing mugimendua gertutik sufritua... ondo al nabil?

(Barrez) Ez nago urruti, ez. Gauza herrikoiak asko gustatzen zaizkit, auzo txikietako festen xarma, patata tortila lehiaketak eta antzerako kontuak. Juan Carlos Perezek esaten zuen, kontzertua jotzera herri batera iristean lehenbizi jakin nahi izaten zuela ea hango futbol taldeak ze mailatan jokatzen zuen, preferentien, regionalean... halako datuak interesatzen zaizkit niri ere. Federico Fellini edo Luis Garcia Berlanga mai-

suak ziren kontu horiekin filmak egiten. Edo *Herri txiki, infernu handi* saioa ere zoragarria da.

Kantuetan sartzen dituzu, behintzat, erreferentzia herrikoi dextente.

Bai, baina abiapuntua beti da ideia absurdo edo surrealista bat. Gero, zeharka, sartzen ditut horrelako erreferentziak. Esaterako, *Patxi Eugi* kantuaren oinarria, Tarzaren film batean entzundako esaldi bat da. “Umigawa!” (*hangaua*) hitza aipatzen zuen askotan, eta ziur nago behin *hangauapatxipatxi* entzun nuela. Gero-ra saiatu naiz pasartea aurkitzen, baina alferrik. Behintzat, balio izan dit horitik abiatu eta istorio bat osatzeko. Edo, begira, *Estepan* sortzerakoan ez nuen pentsatzen Estepan Aldamiz Etxeberriari buruzkoa izango zenik, ni *estepan* hitzarekin ariketak egiten ari nintzen, estepa (paisaia mota), *este pan* (ogi hau), step-an (gimnasioan) eta hala, bat-ba-

tean, Estepan telebistako aurkezlea ere bururatu zitzaidan. Baina ezin dut gai bat pentsatu eta horri buruzko pieza bat egin, abiapuntu absurdo batetik etorri behar du beti kantuak. Nondik etorriko den ez jakite horrek du xarma handiena.

Pentsa daiteke erronkariak pisu berezia duela proiektu honetan, lehendabiziko kantua izateaz gain, Kau Kori Kura izena erronkariaraz Hau Hori Hura baita.

Ez pentsa, zalantzan nengoen izenarekin. Pertsonaia bat sortu nuen aspaldi, *Baxoerdy*, txapelarekin eta betaurrekoekin ibiltzen den hori. Ordizian jaioa da, 70eko hamarkadan Iparraldera joan zen, Mikel Laboaren laguna izan zen... horrekin zerbait egitekoa nintzen, baina Kau Kori Kuraren alde egin nuen azkenean. Orain, kamiseta bat egin nahi dut, Fidela Bernaten aurpegiarekin, omenaldi gisa, Andy Warholen estilora. Ea zer ateratzen den.

Ciclosetik zatoz, baina proiektu honek ez al du antz handiagoa Ciclosen aurrekoarekin, Elurretanekin?

Dudarik gabe. Ciclos Ritxarren proiektua zen batez ere, ia letra guztiak bereak ziren, nik musika jartzen nien. Elurretanen, aldiz, kantuak nireak ziren, eta Ritxarrek baxua soilik sartzen zuen. Elurretanen azken diskoko surrealismo eta absurdo ukitu horretan ikusten dut Kau Kori Kuraren hazia. Une hartan, ordea, Ritxar etorri zitzaidan Cicloseko letrekin, eta erabaki nuen proiektu hura egin beharra zegoela. Ideiak hozkailuan egon dira, eta Ciclos uztean, berriro hasi naiz handik tiraka.

Zure ibilbideari erreparatuta, antzeman daiteke musika ulertzeko modu bat, oso jolastia, handikeriaren antipodetan dagoena.

Begira, duela gutxi entzun nuen irrastian Ttun Ttun Brigade taldeari egindako elkarrizketa bat, eta pentsatu nuen, "hori da jarrera!", ondo pasatzea eta zeure buruari garrantzia gehiegirik ez ematea. Umeen gisara jolasteko eta esperimentatzeko jarrera hori. Asko dugu ikasteko umeengandik.

Zergatik daude tankerako hain apustu gutxi bazterrotan?

Ez dakit. Adibidez, begiratzen diet Juan Carlos Pérezi, Mursegori edo Joseba Irazokiri, eta iruditzen zait hurrengo



“Nire kantuen abiapuntua beti da ideia absurdo edo surrealista bat, ideia nondik etorriko den ez jakite horrek du xarma handiena”

“Ondo pasatzea eta zure buruari garrantzia gehiegirik ez ematea, hori da jarrera”

“Laboaren eta Leteren kantu sakonekin bakarrik geratzen da jendea, baina bazituzten bestelakoak, esperimentatzekoak edo barre egitekoak”

“Gaur egun oso zaila da musika mugimendu antolatuta bat abiatzea”

“Denak martxa berean joateko kolektibo bat baino, proiektu motibagarrietarako elkartu eta gero deselkartzen diren artistak nahiago ditut”

pausoan edozer egiteko gai direla, baita orain artekoarekin zerikusirik gabeko zerbait ere. Mursegori lehengoan galde-tu nion ea zer egiteko asmoz dabilen, eta esan zidan: “ez dakit”. Puntu hori gustatzen zait, eta hemengo oso artista gutxiri ikusten diet. Edo Haritz Artola –Brigada Criminal, Fiachras, Bizardunak–, lagun handia dudana, gai da bat-batean aurrekoarekin erabat puskatuko duen zerbait egiteko. Edo Ibon Rodriguez, Etenekoa. Izpiritu libre horien zain nago ni, ea zer egiten duten hurrena. Musikariengan, idazleengan, oro har, jarrera horren falta sumatzen dut. Jabier Muguruzak edota Ruper Ordorikak –eta kontuz, ni bien oso zalea naiz–, badakizu hurrena zer egingo duten gutxi gorabehera.

Beren ibilbideari oso lotuta ikusten dituzu.

Bai, halako zerbait. Batzuk hortik bizi dira eta ulertzen dut. Gainera, ibilbide bat duzunean zaila da sekulako bolantazoa jotzea, ez bazara PJ Harvey bat, edo Brian Eno, edo Radiohead. Kanpoan gaudenok aprobeitza dezagun nahi duguna egiteko.

Zure kasuan, zure burua ez errepikatzen tematzen zara? Txip kontziente bat da hori?

Ez, ni gauzeekin aspertu egiten naiz. Ciclosen amaiera, adibidez, erabat naturala izan zen. Ritxarren azkeneko letrek ez ziguten ezer berririk esaten. Ba kito. Elurretanen ere iritsi zitzaigun une hori. Amaiera horietan, iruditzen zaizu ez duzula ezer gehiago egingo zure bizitza osoan. Baita zera ere! Pasatzen da urte erdi bat eta sortzen da zerbait berria. Orain arte behintzat hala izan da. Hori bai, Kau Kori Kura uste dut hemendik aurrera nik bakarrik egiten ditudan gauzak izendatzeko erabiliko dudala. Kau, kori edo kura eginda, hortxe sartuko dut!

Kantuek adinako lana izango dute egiten dituzun bideoek.

Bai, bideoek sekulako lana dute, Youtube ahalguztidunean orduak sartu ohi ditut nahi dudana aurkitu arte. Baina niri mundu honetan gehien gustatzen zaidana motibatzen nauen letra bati musika jartzea da. Pop zale edo melodia zale amorratua naiz, plazer gehien melodia asmatzeak ematen dit, sekula ez dakizu nondik eramango zaituzten hitzek. Ciclosen, adibidez, hori zen ederra: *Los*



payasos de la euskal letra e-mailean jasotzen nuen, eta irakurri bitartean ni malkotan, lehertu beharrean. Opari bat. Egongelara joan eta gitarrarekin melodia ateratzen nuen. Gustuko letra edukiz gero, badakit kantua aterako dela. Letra motibagarri bat motorra da niretzat.

Kau Kori Kuran, zer moduz daramazu letragile ere izatea?

Oso ondo! Inolako zerikusirik ez duten edo erabat antagonikoak diren ideiak lotuta batzutan "gauzak" gertatzen dira. Eguneroko, ohiko gauzak bihurritzea gustatzen zait. Miguel Noguera edo Mikel Pagadi maisuak dira horretan. Askotan idazkera automatikoa egiten dut, eta hitz batzuk agertzen dira. Adibidez, Napoleon -eta menta-poleorekin lotu nuen-. Gero, Bonaparte eta euskara lotu nituen. Irakurri dut hortik zehar baten batek "euskararen aldeko kantu" deitu diola. Baita zera ere! *Kalamarana* kantua Juantxo tabernari kritika dela ere irakurri dut. Kritika? Omenaldi bat! Zenbat ogitarteko jan ditut hor! Edo, adibidez, ez nuke nahi ulertzea *Estepan* kantua deus pertsonala bezala, ez baita horrela. Leire Lopez Ziluaga kritikariak Ciclosi buruz esaten zuen, gehien interesatzen zitzaiona zela nola entzulea deseroso uzten genuen, ez zekitelako entzuten ari den ahots horrek zer pentsatzen zuen benetan, hemen kantua hitzak artistaren iritzi propiotzat jotzeko ohitura dagoela, eta hitzek fikzioarekin duten harremana gogoratu beharko genuke-

la. Ciclosen denetik deitu ziguten, fatxak, *etarras...* norberak nahi bezala ulertzen du kantu bat, noski, baina gauza askorekin seko harritura gelditzen naiz.

Zer ari zara entzuten azkenaldian?

Betidanik entzun, eta jarraitzen ditut entzuten, adibidez: Beach Boys, Cluster, Brian Eno, Mikel Laboa, Jaume Sisa, Javier Bergia, Richard Thompson, Juan Carlos Pérez, Neu! edo La Dusseldorf, batzuk aipatzeagatik.

Eta zerk harritu zaitu azkenaldian?

Azkenaldian flipatu dut hainbat musikarirekin, batzuk egungoak, besteak aspaldikoak. Frank Zappa And The Mothers Of Invention, The Residents, Rafael Berrio, Los Ganglios, 70eko hamarkadako prog-italiar taldeak...

Lehenengoan Joseba Irazoki ikusi nuen, taldearekin, Bilbon, eta ukituta gelditu nintzen. Sentsazio hori nuen: "Hau edo-zer egiteko gauza da". Pixka bat Laboa-rekin gertatzen zen bezala. Niri grazia egiten dit Laboa nola oroitzen den hemen: bere alde sakonaz bakarrik oroitzen da jendea. Baina Laboak zeukan umorea, esperimentazioa... Gogoratzen naiz nola jo zuen Beasaingo Kilometroetan. Bi kantu ezagunekin hasi zen, baina gero hasi zen Chiquito de la Calzadarena egiten: "Anaximandro! Anaximenes!" eta antzerako oihiak botaz, gero kantu instrumentalak joz.... Taula gaineko performance bat. Nire lagunek jasangaitza zela esaten zuten. Baina zer uste zenu-

ten dela Laboa? Bere gitarrak kantuak oso politak dira, melodia ederrekoak, eta horiek engantxatzen dute jendea. Esperimentazio alde hori, berriz, bere alde frikia bezala geratu da. Ohartzen zara, ordea, pakete osoa hartzen duzunean, sekulakoa dela, aurpegi pila bat dituelako. Xabier Leterekin ere antzera: baditu barre egiteko kantuak, baina hemen jendea gelditzen da sakontasun eta solemnitarekin.

Laboa eta Letez gain, Ez Dok Amairuko beste artistak zer iruditzen zaizkizu?

Euskal klasiko gehienak gustatzen zaizkit. Jada gutxi entzuten ditut, baina hor daude, ziur kantuak egiterakoan eragiten didatela. Adibidez, Txomin Artolaren *Belarrostoak* diskoa sekulakoa iruditzen zait... edo Oskarbi taldearen kantuak, ze melodia eta ahots ederrak!

Duela gutxi esaten zuen Benito Lertxundik Ez Dok Amairu garaiko izpiritu hura berreskuratzeko beharra ikusten duela.

Eñaut Elorrietari entzun nion antzeko zerbait, 70eko hamarkadako kantuen izpiritua berreskuratu nahi zuela edo... Halakoetan pentsatzen dut: garai hartan kantu horiek ez zeuden eginda; jada eginda daude. Izpiritu hori orduan behar zen, ez dauka zerikusirik egun behar denarekin. Lehen komunikabide gutxiago zeuden, zuzenekoak ere gutxiago ziren... orain hamar mila adar daude, musika entzuteko modua aldatu da, eta oso zaila da musika mugimendu antolatua abiatzea.

Egon da saiakeraren bat edo beste. Orain urtebete inguru Ez dok amaitu proiektua plazaratu zuten musikari batzuek...

A bai? Ez nekien. Dena dela, ni ez naiz oso kolektibo zalea, beren manifestu eta guzti... Arte munduan, jarrerarik interesgarriena elkartzea eta deselkartzea da. Denak martxa berean joateko kolektibo bat baino, proiektu motibagarriarako elkartu eta gero deselkartzen diren artistak nahiago ditut.

Zuzenekoak ematen hasteko asmorik baduzu?

Ez dakit zer esan. Niri betidanik kantuak sortzea gustatu zait jotzea baino gehiago. Baina azken aldi honetan jotzen ere disfrutatzen ari naiz. Ehun abestiko erreperetoria iristen naizenean, egingo dut zerbait (barrez). ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Kondentsazioa



Igor Estankona



Lainoa janez

JUAN KRUZ IGERABIDE

Erein, 2015

Lainoa janez-janez ibiliko bagina legez goaz bizitzan aurrera Igerabideren poema liburu fin eta xamur honen orrialdeak zeharkatuz, euri fin bat sentituz, denbora. “Oren guziek dute poeta kolpatzen, azkenekoak du hobirat egortzen”. Bitartean hausnarketa eta sentitze bat da mundua: “Euria ari du hilerrian/ eta zu ez zaude zutik”.

Busti-busti egingo gaituen zirimirira ateratzea bezalakoa da *Lainoa janez* honetan paseatzea; ez dauka berba bat bestea baino altuago esana, ez dauka mutur bat findu gabea, pisu bat alferrik, errepikapen bat erredundantea izango dena. Finean, idazlearen ofizioaz gozatzeko liburu horietako bat da. *Existe dios al noroeste* oteizarra barruntatuko balu legez doa Igerabide heriotzaren eta bizitzaren muga den euriaren ertzetik, eskutik eroango zaitu zu ere bidaia atsegin tristean: “eta udazkena hanka-puntetan igarotzen da/ gatzaina-morkotsen gainetik/ izan-nahia ziztatuz/ izan gabe garenoi”.

Poesia existentzial honen bertute nagusia da, nire aburuz, zabala eta detailez betea den munduari sano lotua dagoela. Ez da diskurtso eta teoria zalea idazlea: “Neskatoa txirristan dator/ euririk gabeko errealitatera;/ etxeko lanak ditu mahai gainean./ Hortxe jaio zitekeen poeta bat”. Eta izan zitekeenaren eta gertatu denaren arteko zidorretatik ibiltzea bera bihurtzen da horrela helburu. Bizitza bizitzeko dela da mezua. Beraz filosofikotik baino gehiago dauka *Lainoa janez* honek bizizaleatik. Edertasun distira bat, hitzek oharkabean egin dioten jokoa, zabalik utzitako poema-bukaera bat... heriotzari iskin egin eta beti bizitzari kantatzeko

prest, ezerez nihilista baino askoz argiagoa da Igerabideren euri-egun hau. Eta nahiz eta sinetsi egun batean hilen garela hutsean eroriak ezerezean amilduak hauts bihurtuko garela, oraindik maitaraziko dizkizu bere argi-ilunak, bere eguneroko plazer eta bihotz-minak Maisuki marrazten du natura bat egin bere aldartearekin, metaforak baino perfektuagoak diren argazkietan: “Han, urrunean, itsasoa/ olatuen mende./ Ez dago kairik amodioarentzat;/ noraeza baino ez./ Ez dakit alaba kontsolatzen/ maiteuzte baten ondoren”. Izan ere, Juan Kruz Igerabidek lortu du depurazio bat itzela, lanak eta barne-aztertze zintzoak emana urterik urte, liburuz liburu. Giharrean ukituko zaitu halabeharrez, estetikoki zein esanahiaren aldetik, *Lainoa janez* honek ere: bustiko zara goitik behera erdi behe laino erdi euri langar ederrean. ■

Juan Kruz Igerabide
idazle eta poeta (Aduna, 1956).



» TELEGRAMA


Paraleloan musika elektroniko saioak Bilbora itzuliko dira urriaren 7an **DJ Stin-gray**ren emanaldiarekin. Bilboko Kafe Antzokian da zita gauerditik aurrera **STOP Santurzine** film laburren jaialdiaren edizio berria hemen da eta aurten garrantzi berezia eman nahi izan diote Euskal Herriko produkzioari: urriaren 6tik aurrera etxean egindako hainbat film eskainiko dituzte **STOP Baby Shakes** New Yorkeko taldea Donostiako Le Bukowskin ariko da urriaren 9an 20:00etatik aurrera: hiru emakume hauek agertokian egiteko gai direna entzun nahi izanez gero, ez galdu aukera **STOP**

» DISKOA

Post rock doinu sendoa



Joxi Ubeda



Zimur sendoak

TORII

I. O. 2016

Baionako Torii taldeak kaleratu du I.O. (Iparrorratza) zigiluaren lehen diskoa. Jurgi Ekizaren ekimenez sortu da zigilua, Ipar Euskal Herriko taldeen lanak argitaratzeko.

Rock eta post rock aireak suma daitezke Torii taldearen kantuetan. Gitarren riffak eta haien arteko jolasak edo elkarrizketak, erritmo aldaketak, melodiak eta kantuek transmititzen duten energia azpimarragarriak dira.

Musikari bakoitza trebetasunez aritzen da bere tresnarekin, abeslaria ere bai, batzuetan sumindurik eta beste batzuetan leun, eta ederki zehaztu dute bakoitzak zein toki betetzen duen kan-

tuan. Karlos Osinagarekin grabatu dituzte kantuak Tolosako Bonberenea estudioetan, Karlos Osinagak berak egin ditu nahasketak, eta masterizazioa Jonnan Ordorikak egin du Azkarateko Mami estudioan. Ekoizpen lan ona egin dute. Doinu indartsua gauzatu dute, sendoa, garbia, naturala.

Kantuen bidez, beren gogoeten, kezken eta sentimenduen gainean gordin mintzo dira: "Egun ikusi dut, hil zen gizon bat, bere inguruan mundua irriz eta dantzan, egun ikusi dut hiltzorian zen mundua, bere gainean gizonak irriz eta dantzan" (*Makur eta itsu*), "Eroriko nintzela pentsatzen nuenean, etsipenaren menpe bakarrik nintzenean, hatsa hartu ezinik, agertu zinenean" (*Itzalak argitu*), "Jan, edan, lasai, dena kontrolpean dago, ez, ez zaitugu utziko batzen ta oldartzen" (*Kontrolpean*), "Zure oreka atxeman, denbora hartu, eta itzuli, egin duzunaren gainean, eginen duzunaren aintzinean, eta sartu biziaren dantzan" (*Oreka*), "Itxurakeriaren erregea, garbitasuna bere jauregia, bazterketa bere boterea, bere epaia ezeztazina" (*Itxurak*), "Eguzkia dut orain ikusten, bidean gelditu naiz hitz egiten ortzimugari, oihuka biziaren mugeri" (*Ortzadarra*).

Zimur sendoak osatu baino lehenago Torii taldeak beste bi disko kaleratu ditu: *Bi* (2014), hiru kanturekin, eta *Lehenbiziako Atea* (2012), sei kanturekin. ■

Torii talde baionesa, buru-belarri eszenatokian.



Ñabarduretatik eta ñabardurei kantari

TESTURAK

Emakume Etxeek antolatutako bertso saioetan lehen izan zen Eibarkoa, irailaren 30ean egin zena.

Hurrengo emanaldiak (denak 19:00etan):

- Urriaren 5ean Ermuako Emakume Topalekuan.
- Urriaren 28an Ondarruko Etxelilan.
- Azaroaren 9an Azeitiko Emakumeen Txokoa.
- Azaroaren 11n Arrasateko Emakumeen Txokoa.
- Azaroaren 18an Durangoko Andragunean.
- Abenduaren 1ean Basauriko Marienean.



Ainhoa Agirreazaldegia

Aurreko ostiralean izan zen *Testurak* ekimeneko lehen saioa, Eibarko Andre-txean, Nerea Ibarzabal gai-jartzaille lanetan eta Saioa Alkaiza, Onintza Enbeita, Izarne Zelaia eta Ainhoa Agirreazaldegia bertso kantari ginela. Egitura zehatza izango dute *Testurak* saioek: gai-jartzailak, bertsoaldi bakoitzerako, emakumezko idazle baten testu zati bat irakurriko du eta, ondoren, testu horretatik abiatuta, gaia emango die bertsolariei.

Argi geratu zen lehen ekitaldian, saioak Emakumeen Etxeetan izateak eta gaiak idazleen testuetatik abiatzeko bertsolariei eta entzuleei zukua ateratzeko moduko hainbat abagune eskaintzen dizkigula.

Izan ere, bertso saio batean beti da interesgarria gai jakin baten barruko azpi-gaiak, matizak, ikuspegi desberdinak agertzea. Hain zuzen, bertsoetan horixe izaten da batzuetan zailena, hiruzpalau bertsoetan guztia egin behar baitu bertsolariak: gaiaren zein alderi helduko


dion erabaki, hori publikoari ahalik eta ondoen adierazi, eta bizpahiru mezu eman. Eta publikoki gehiegi landu gabeko gaiak direnean, ez da erraza bertsolariarentzat matizetaraino iristea: gaiaren azaleko geruzan geratzeko arriskua egoten da.

Idazleen hitzek testuinguru zehatz batean kokatu gintuzten Eibarren. Gertakari baten inguruko gogoetek, pertsonaien arteko elkarrizketek... kontestu aberatsa ezarri zioten gerora etorriko zen gaiari: iragan bat, orain bat, emozio bat, leku bat, tonu bat... Eta hala, gerora gai izan ziren ahotsa, amildegia, adineko emakumeen gorputza, ezkontza, ama izatearen presio soziala, oroitzen ez diren harremanak, hilerokoa, bidaietako maletak, ligeak... hainbat ñabardurekin jaso genituen bertsolari eta entzuleek, eta ñabardura konpartitu haietatik abiatuta osatu genituen bertsoaldiak. Horrek, politikoki zuzenak diren bertsoen beharra uxatu eta mami aberatsa-

goak sortzeko aukera ezin hobea eman zigun. Eta hala agertu ziren pertsonaia tristeak, lotsagabeak, damutuak, goxoak, asaldatak, beldurtiak, makarrak, kontraesankorrak... umore dosi handi batek lagunduta. Azken finean, bizitzaren testurak, fikziozko egoerak ziren arren, mamitik eta zintzotasunetik asko zutenak.

Saioak izan zuen beste opari bat ere: Ixiar Rozas, Eider Rodriguez, Miren Agur Meabe, Katixa Agirre, Leire Bilbao, Karme Jaio, Ana Urkiza, Irati Jimenez, Castillo Suarez, Irati Goikoetxea eta Ana Malagon idazleen obrak gehiago ezagutzeko egarriz atera ginen Eibarko saiotik bai entzuleak, bai bertsolariak. Zeharkakoa bada ere, ez da lorpen makala hori bera.

Eskerrik asko, beraz, Emakumeen Etxeei, geure buruak –denona eta bakoitzarena– berrasmatzeko aukera emateagatik. Hurrengo ñabarduretarako gozoz... ■



Maryam Fathi. Errefuxiatu kurdua Bilbon



Kurdua eta emakumezkoa Iranen, errefuxiatua Europan. Hiru zama horiei kontrajarri die Maryam Fathik kontzientziaduna eta aktibista izatea... Eta gailendu da. Bere sorterrian jazarpenari eta matxismoari aurre egin zien eta, iheslarien odisea gainditu zuen. Bilbon bizi da egun, erizain laguntzaile lanean, eta kurduen aldeko ekimen ugarietan esku hartzen du.

“Kurdistango gerrillarien benetako irudia ez da begi handiak eta Angelina Jolieren antza dituen gazte batena”



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA

Europarainoko odisea

“Egun batetik bestera irten behar izanez gero, derrigorrez modu ilegalean irten behar duzu, mafien bidez, paper faltsuekin, eta mafia horiek larritasuna baliatzen dute dirua irabazteko. Airez atera nintzen, Teherango aireportutik, pasaporte faltsuarekin, semearekin. Frantziara bidaliko nindutela esan zidaten, gehiago ordaindu behar da Frantziara bidaiatzeko, baina Bulgariara eraman gintuzten, engainatuta. Han giltzapean eduki gintuzten, diru gehiago eskatzen zuten... Errumania eta Hungaria arteko mugan atxilotu gintuzten, gaitz erdi. Hamaika heldu eta zazpi haur ginen eta poliziak atxilotzea izan zen gure salbazioa, kilometro bat aurrerago ibai batera helduko ginen, guk ez genekien baina mafia-koek bai, eta ibai horretan gehienak itoko ginen segur aski”.

Nolakoa da zure sorterria, Rojalat eskualdea?

Irango Kurdistanen zati bat da, hamahiru edo hamabost milioi biztanle daude. Sorani eta kurmanji mintzatzen dira, hurrenez hurren, kurdueraren bi dialekto nagusiak. Nire hiria, Marivan, Irakeko mugatik lau kilometrora dago eta militarizatutako gunea da. Bertan Kurdistango mugimendu asko sortu dira historian. Pixka bat iparerrago, Mahabad-en, Kurdistango errepublika sortu zen 1946an, hamaika hilabete iraun zuena. Preso politiko asko daude eta jende asko exekutatu dute. Kurdistanen bihotzean sentitzen zara han, denak kurdueraz mintzo dira Marivanen eta Mahabaden, eta janzkera kurdua daramate.

Administrazioa guztiz arrotza da ordea.

Bai, ekintzaile asko daude baina administrazioa erabat estatuaren esku dago, inoiz ez da bertan gobernadore kurdurik egon. Irandarrak edo Irango Gobernuaren aldeko kurduak dira hango agintariak. Hauteskundeak egiten dira, baina gobernuak alde zuzetik onar-

tu behar ditu hautagaiak eta ez dago legeztatutako alderdi politikorik. Giza eskubideen aldeko elkarteko presidente Mohammad Sadiq Kabudvand-ek bederatzirente daramatza kartzelan... Atera kontuak. Irango preso politiko gehienak kurduak dira eta iragan urtean mila preso baino gehiago exekutatu dituzte.

Plazan, jendaurrean?

Eskualdearen arabera, kurduen gunean ezin dute hori egin, kartzela barruan egiten dute. Laz estreinakoz preso sozial bat exekutatu saiatu ziren Sanandaj-en, kalean, baina jendetzak eragotzi zuten, presoak salbatu zuten. Jada ez dira ausartzen, herritarrak bizi daudelako eta kalean eginez gero matxinada arriskua dagoelako. Irango parte batzuetan, ordea, bai egiten dute hori.

Zerk bultzatu zintuen Irandik alde egitera?

Iran estatu islamiko xiita erradikala da, eta han emakumea ez da gizakia. Kartzela handia da emakumeontzat, are gehiago kurdua bazara. Emakumeen ezkutuko antolakunde batean ari ginen eta gobernuak gure aurkako sarekada egin eta kide batzuk atxilotu zituen. Ha-



Heriotza edo espetxe zigorraren arriskutik ihesi iritsi zen Maryam Fathi Europara. Argazkian, irailaren 21ean Kurdistanen alde Bilbon egindako elkarretaratze batean.

rripatua izanez gero, abokaturik gabeko bost minutuko epaiketa batean heriotza zigorra edo kartzela zigor luzea duzu zain. Beraz, egun batetik bestera alde egitea besterik ez zitzaidan geratu.

Kurduekiko zer jarrera du oposizioak?

Irango oposizioak oraindik ez du onartzen kurduen autodeterminazio eskubidea, herrialdea apurtu nahi dugula diote. Bilera asko egin dituzte kurduekin erbesteetan, baina ez dute ezta federalismoa ere onartzen. Gehienekin ez ditugu harreman onak, gutxi batzuekin bai. Denetarik dago, baita errege izandakoaren semea ere, egunen batean agintera heltzekoa asmoa duena, baina hori ezinezkoa izango da.

Estatu kurdurik izango da noizbait?

Irakeko aldean asko hitz egiten ari dira estatu independentea sortzeaz, baina eskubide falta handia dago Irakeko Kurdistanen. Nik nahi dut gizarte justiziarren, ekologismoaren eta feminismoaren alde borrokatuko den Kurdistan bat, eta gizartea arlo horietan antolatuta daiteke estatua izan gabe ere. Abdullah Ocalan

nek esana da: “Kurdistan ez da inoiz libre izango emakumeak libre ez badira”.

Mendebaldean, bitartean, gerrillari gazte eder baten irudia nabarmendu da.

Begirada sexista da hori. Kurdistango gerrillarien benetako irudia, guretzat emakume ederra dena, ez da begi handiak eta Angelina Jolieren antza duen 19 urteko gazte batena. Mendebaldeko ikuspegia da hori, errespetu falta handia. Zergatik ez dute emakume horren ideologiari buruz hitz egiten? Badakitelako ideologia horren arabera itxura fisikoak ez duela garrantzirik. Borroka honetan milaka emakume prestu galdu ditugu azken 45 urteotan. Parisen hildako Sakine Cansiz buruzagia, Iranen urkatutako Shirin Alam Holi edo Rojavan hildako Arin Mirkan komandantea, Estatu Islamikoari Kobane gaineko mendia hartzea eragozteko bere burua leherrarazi zuena. Milaka emakumek bizia eman duten borroka hori sexismoaren aurkakoa da. Emakumeak panpina baten moduan erabiltzen dituen sistema kapitalista honen aurka ari gara borrokan.

Matxismo handia dago gizarte kurdu tradizionalen?

Emakume kurduen lanaren %70 gure gizartearen barruko matxismoaren kontrako izan da, populazioaren ikuspegia aldarazteko. Matxismoa sakon errotuta dago gizartean, gizon kurdu bakoitza erregetxoa da bere etxean.

Askatutako guneeetan, aldiz, Siriako Rojavan kasu, gizartea asko aldatu da azken urteotan.

Sakonki aldatu da, bai, eta antolakuntza maila are interesgarriagoa da borroka armatuaren garaipenak baino. Turkiako Kurdistanen badira herritarren kontrolpeko komuna batzuk, diruzaintza batzordea, justizia batzordea dago, herriko jendeak dira delituen gainean erabakiak hartzen dituztenak. Rojavan ari dira emaitzak jasotzen, baina Turkiako Kurdistanen urte asko daramate hau guztia prestatzen. Rojavan dabiltzan borrokalari gehienak Turkiako kurduak dira eta heren bat Irangoak dira, ez dituzte mugak onartzen eta borrokarako bat egiten dute. Sinjarreko gudua izan zenean, Rojavako gerrillariak Irakeko Kurdistanera joan ziren eta mendian zeuden yazidi herriko milaka lagun salbatu zituzten Estatu Islamikoaren setiotik. ■



“Ezker abertzaleko epel horiekin ez goaz inora”, esan du EAJk Alderdi Egunean

Milaka lagun batu ziren igandean Forondako zelai orlegian, lau txikito hartu eta EAJk Bizkaian azken minutuan eta penaltz legebiltzarkide bat galdu due-la ahazteko di-da antolatutako Alderdi Egunean. Ohi bezala, euren aurpegi abertzaleena erakutsi zuten buruzagi jeltzaleek. “Hauteskundeetan jo dugun zartakoaren euforiaz, ezkerreko besoa altxatuta ateratzeko zorian egon naiz, baina azken unean irudi aholkulariek esan didate hobe nuela betiko estiloan egin, bi besoak gora eta alkandorako mahukak bilduta”, aitortu dio Beranduegiri Andoni Ortuzarrek.

Oholtza gainean, “Euzkadiren nasio izaera” –tira, gutxi gorabehera– aitortzeko eskatu zion Ortuzarrek Espainiako



Alderdi Egunaren amaieran Forondara joandako guztiekin banan-banan berba egin zuen Antolakuntza Batzordeko gizaseme jator honek.

Estatuari, eta erabakitzeko eskubidea defendatu zuen. Behin berotuta, nazio eraikuntza eta eraikuntza soziala esaldi berean aipatzera iritsi zen Iñigo Urkullu, eta Ispasterreko betidaniko afiliatu bat han bertan artatu behar izan zuen Gurutze Gorriak –bai, gorria!–, abertzaletasun gaindosiak kaltetuta nonbait.

“Uf, susto hauek urtean zehar lauzpabost alditan zatituta ematea bazeukaten ba! Holan ezin da, dena batera...”, kexatu zen gizona bere onera etorritakoan; “medikuak esan dit EAri botoa emateko denbora batez, prebentzio modura”.

“Datorren urtera arte” esanez eman zioten amaiera jaiari.

Zortzi lesionatu Argia Eguneko nortasun agiri arrotzak jaurtitzeko txapelketan

ARGIAko iturri ofizialek behin eta berriz ukatu duten arren, Beranduegik lortu dituen parte medikuek argi erakusten dute: zortzi lagun ospitaleratu behar izan zituzten joan den larunbatean, Ondarroako Argia Eguneko nortasun agiri arrotzak jaurtitzeko txapelketan parte hartu ondoren. “Abertzale batentzat pisu handiegia dauka nortasun agiri espainiar edo frantziar batek, gehiegizko ahalegina da egun osoan gainean eramateaz gain, urrutira jaurtitzen saiatzea”, esplikatu du Susana Hezurrotertegi traumatologoak.

“Horrelako kirol probak debekatzeko eskatzen ari gara aspaldian”.

Lekeitiar batek bere nortasun agiria 40 metrora jaurti zuela azaldu diogunean harritu egin da medikua: “Ez dut uste posible denik, dopinik gabe behintzat”. Segundo batzuek pentsakor geratu da. “Bueno, badago beste aukera bat: lekeitiar hori Podemosekoa bada, akaso NANak ez zion hainbeste pisatzen”. Txapelkunari telefonoz deitu ondoren, Beranduegik ezin izan du argitu bere marka dopinari ala Espainiarekiko sinpatiarri zor zaion.



Lesionatu zen Txomin Kalatraba dimoztarra.


EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK

ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK



943 371545
HARPIDE@ARGIA.EUS
WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

Urte osoko harpidetza

ARGIA

ARGIA astero, hilean 12€ baino ez.
ARGIA hamabostero, hilean 6,5€ baino gutxiago.
ARGIA hilero, hilean 3,5€ baino gutxiago.



ARGIA 2017ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz janzteko.

***Ez beldurrik izan
datorrenari...
eskatu orain 2017ko
ARGIAren egutegia.***

Buruketak

Galdetzea libre

Atzokoak gaur

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Egutegia

9€

50€

Egurrezko
taula
egutegia
opari



☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus